

ttipi ttapa

2003ko martxoaren 6a • XXIII. urtea



Natalia Ordoki
kantu irakaslea

03

Euskal kantu tradizionalekin gozatzeko, kantu ikastaroa ari dira egiten asteazkenero Berako Kultur Etxean. Momentuz 16 lagun elkartzen dira ordu eta erdiz.



Ezkontza
gehigarria

GB

Ale honekin batera Ezkontza gehigarria ikusiko duzue erdiko orrialdeetan, gaiarekin zerikusia duten hainbat artikulu eta aholku komertzialez hornitua.



04 **Produktu naturalekin egindako likoreak**

ORDOKI ALTZARIAK

ESTILO UGARIKO MOBLEAK

kortinak, lanparak...
eta etxerako osagarriak

LARUNBAT GOIZ ETA ARRATSALDEZ IREKIA



Merkealdia erakusketako mobleetan eta bertze artikuluetan

ERAKUSKETA: Bittiria 30 eta Plaza Zaharra 26

SALTOKIA: Plaza Zaharra 27 · Tfnoa: 948 63 77 80 · NA - 31780 LESAKA

Egunkaria aurrera

Orain inoiz baino gehiago!

Egin zaitez harpidedun

(dagoeneko harpideduna bazara, ez bete)

deitu
deitu

943 30 35 55

943 30 35 54

edo bidali zure datuak eta telefonoa helbide honetara:

Martin Ugalde Kultur Parkea • Eraikin zuria • 20140 ANDOAIN

Euskarak behar zaitu

Egunero

DATUAK...

- Natalia Ordoki da Beran, Labiaga ikastolaren eskutik otsailaren 12an hasi zen betiko euskal kantuen ikastaroko irakaslea.
- Hamasei lagun ari dira asteazkenero kantu zaharrak ikasten, «baina ateak nahi duten guzieri zabalik daude». Zortzi saio egingen dituzte 19:00etatik 20:30etara Kultur Etxean.
- Abesteaz gain, kantua noiz egin zen, egilearen ezaugarriak, euskalkiarenak... ikasten saiatzen dira.



Natalia ORDOKI *Kantu zaharren irakaslea*

AITOR AROTZENA

«Abesteaz gain, kantu zaharren testuingurua ezagutzen saiatzen gara»

Aitor AROTZENA

Nola sortu zen euskal kantu tradizionalen ikastaroa egiteko ideia? Ikastolako ikasle ohia naiz, musika ikasia naiz eta bertatik eskaini zidaten irakasle lanean hasteko. Labiagako klaustroari eta pedagogi-taldeari gogoratu zitzairen eta hauek Kultur Batzordera eraman zuten ideia. Inoiz ez zen halakorik egin Beran eta proiektu interesgarria iruditu zitzairen. **Lehen mahainguruan kantuan has-teko ohitura handiagoa zegoen. Zergatik uste duzu ohitura hori galdu dela?**

Ez dakit, telebistan adibidez, ez da aunitz ikusten. ETBn bertsolaritza ikusten da, baina tradizioarekin zer ikusia duten kantauak gutti, eta bertze kateetan berriz, bat ere ez dute ematen. Kanpotik bertze gauzak jasotzen ditugu eta hori hartzen dugu. Jendeak gauza berriak hartzen ditu, ez aitzinakoak, niretzako probetxugarriagoak direnak.

Haur kantari txapelketan, halere, inguru honetako neska-mutiko aunitz ikusten dira. Gero, ordea, utzi egiten da...

«Nik Iparraldean senideak baditut eta kantatzeko bertze ohitura bat dute: bazkarietara gitarrarekin joaten dira. Ez dakit hemen zergatik galdu den hori»

Haur kantari txapelketa saiatzen da ohitura hori berreskuratzen, kantu zaharrak bultzatzen. Ttikitan bertsoak ikasten dituzu ikastolan, baina gero erabat uzten duzu, lotura hori akautzen da eta kanpoko gauzetara jotzen duzu, dantzalekuetan aditzen duzuna, telebistan ikusten duzuna... eta hemengo alde batera uzten da. **Euskal Herrian berean, kantatzeko ohiturari dagokionez, ezberdintasun handia somatzen da Iparraldea eta Hegoaldearen artean...** Ohitura da. Nik Iparraldean senideak baditut eta bazkarietara gitarrarekin joaten dira. Ez dakit hemen zergatik galdu den hori.

Beran, azken aldian, musikari aunitz plazaratu dira, talde handiekin, bakarka... baina beti ere musika modernoan aritzen direnak. Ikastaro honi esker, kantugintza

tradizionalean ere horrelakorik sortzen ahal da?

Niri gustatuko litzaidake horrela gertatzea. Jendeak parte hartzea bilatzen dut, ez bakarrik kantak eraman eta jendeak abestea. Zein kantu ikasi nahi dituzten galdetu eta gauza politak atera ziren.

Zure lana zein izaten da, letrak erakustea edo musika aldetik ere lan-tzen duzue, ahotsak...

Nik pianoa jotzen dut eta horrekin egiten dugu. Batzutan diskak ere jartzen ditugu laguntzeko. Baina ez da abestea abesteagatik, bertze helburua ere badugu: kantaren testuingurua ezagutzea, noiz egin zen, egilearen ezaugarriak, euskalkiarenak... **Telebista aipatu dugu lehen eta azken aldian, kantugintza oinarri duten saioak arrakasta izaten ari dira. Horrek jendea kantatzera animatzen du?**

Programa horrek gauza onak eta txarrak baditu, baina bai aldatu dela nahiko. Telebistatik sartzen den guzia jendeak kopiatzen du eta bai animatzen duela abestera. Desberdinak dira, bat komertziala eta bertzea betikoa.



Luis Miguel Lameriñas, Baztan Likoreak enpresak ekoiztutako edariak eta bertze artisau produktuak saltzen dituen denda.

ARGAZKIAK: EDURNE ZUBIETA

Euskal Herri osoan likoreak modu tradizionalan egiten dituen leku bakarra eskualdean dago, Arizkunen. 1995. urtean sortu zen Baztan Likoreak enpresak produktu natural eta tradizionalak egin eta gehienak Ordoki markarekin saltzen ditu. Duela zazpi urte terdi, Baztango udalari lurra erosi ondotik 220 metro koadroko nabe ttiki bat sortu zuten hiru sozioren artean eta bi urte egin zituzten horrela. 1997an, aitzinekoa ttiki gelditu zitzairenean bertze nabe bat ireki zuten. Luis Miguel Lameriñas, Baztan Likoreak enpresako produkzio arduradunak aipatu digunez, zortzi likore ezberdin egiten dituzte orai: patxarana, moskatela, patxaka, feijoa, menta-likorea, urrilo edo mandragora, kamamila-likorea eta erregaliz-likorea. Gainera, bertze edari batzuk komertzializatzen dituzte.

ARIZKUNGO BAZTAN LIKOREAK ENPRESA

Bertako lehengaiekin egindako edariak mahaingurua goxatzeko

Joseba OLAGARAI

Gaur egun zortzi langile ditu Baztan Likoreak enpresak. Lehengaiak pattar edo anisetan beretzen utzi, behar bada azukre pixko bat eman, garbitu, filtratu, analizatu eta botiletan sartu, dena bertan egiten dute. Edari bakoitzak denbora ezberdina behar du mazeratu edo beratzeko. Menta belarra, adibidez, 25 egunez edukitzen da pattarrean. Patxarana hamar hilabetez kontzen da 28 graduko anisean, 40.000 litroko deposito batean. Garbitu eta analizatu ondotik botilatan sartzten da. Basaran ale-

ak ere sartzten dira botilatan, Luis Miguel Lameriñasek erran digunez: «Behin mazeratu denean, basaranak ez dio gusturik ematen, baina itxura hobea du horrela, ikusteko politagoa da». Te likorea limoiarekin eta bergamota pixko batekin beretzen dute alkoholean 25 egunez. Kamamila likorea anisean kontzen dute 25 egunez. Sagar-basa edo patxaka 2.000-3.000 kilo biltzen dituzte, inguruan gehiago ez dagoelako eta patxaka likorea egin. Patxaranaren prozesu bera segitzen du, hau da, hamar hilabetez egoten da 28 graduko anisean.

Likorerik fuertena Baztan Likoreak enpresaren asmakizuna da, urriloarekin eta bertze osagai aunitzekin egin: «45 gradu ditu sorgin saldak eta Madrileko Fitur feriarako asmatu genuen, likore berria eta fuertea da».

Likore eskaintza zabala dute gaur egun, baina etorkizunari begira edari gehiago ere merkaturatu nahi dituzte. Izan ere, enpresa honetako arduradunei beti dabilkie ideia berriren bat burutan, produktu naturalekin egindakoa, nola ez. Hau da enpresa honen ezaugarri nagusia, beti produktu naturalak erabiltzen dituztela, hiru

LIKORE AUKERA ZABALA



URRILLO

Belar likorea
1-0,5 litro
Bol. %45

Litro eta litro erdiko sorgin itxurako botilan saltzen da *sorgin salda*. Garai batean sorginek erabiltzen omen zuten urriloa (*mandragora* espainolez, *mandragore* frantsesez) eda-beak egiteko.

FEIJOA

Feijoa likorea
0,7-0,5 litro
Bol. %25

Feijoa fruta tropikala da berez, baina Baztan-Bidasoan landatzen da. Urrian eta azaroan biltzen da. Goxoa da eta zapore exotikoa du. Lodo aunitz dauka. Patarean beratzen da. Kolore gorrixta.

PATXAKA

Sagar likorea
1-0,7-0,5 litro
Bol. %25

Sagar ttikia da patxaka, hagitza zamina. Irail eta azaro artean biltzen da. Osorik beratzen da anisean, 7-12 hilabetez. Sagar likore horixta, arina, fruitu zaporekoa eta arras digestiboa.

PATXARANA

Basaran likorea
1-0,7-0,5 litro
Bol. %25

Patxaka baino ezagunagoa, tenore beretsuan biltzen da basarana leku idorragoetan. Anisean beratzen da zapore azido xamarra duen fruitua eta bertan goxatzen da. Kolore gorri biziko edaria.

TE BELTZA

Te likorea
0,5 litro
Bol. %25

Kolore nabar gorrixtako edaria, usain gozokoa eta digestioaren estimulatzailea. Limoiarekin eta bergamota –udare klase berexia– pixko batekin beratzen da.

MENTA

Menta likorea
0,5 litro
Bol. %25

Menta Piperitaren hostoak patarean beratzen dira eta nabar berdaxka koloreko likore goxo-goxoa egiten da, usain onekoa, tonikoa, afrodisiakoa eta estimulatzailea.

ERREGALIZA

Erregaliz likorea
0,5 litro
Bol. %25

Erregalizaren susturri puska patarean beratzen dira. Urre koloreko edaria ateratzen da, aho-sabaian luzaroan mantentzen den zapore berezia uzten duena.

BERTZEAK

Kamamila
0,5 litro
Bol. %25
Pastis aperitif
1 litro
Bol. %45
Sagar berdea
1-0,5 litro
Bol. %20
Melokotoia
1-0,5 litro
Bol. %20
Moskatela
0,5 litro • 15°

kasutan izan ezik: sagar likorea, melokotoi likorea eta meloi likorea produktu kimikoak eta usai bereziak erabiliz egiten baitituzte, Frantzia aldean hobeki saltzeko. Baina gainerako guztiak modu tradizionalan eginak dira. Hortaz, «Nafarroako artisau janarigileen elkarte»ko kide dira, eta horri dagokion zigorra daramate enpresa honetako botila guztiek. Horrek, bertako lehengaiekin lan egitera behartzen die, «ezin dugu estranjeriatik produkturik ekarri».

LIKORE BERRIAK MERKATURATZEKO BI URTEKO PROZESUA

Gure inguruan ez ezik, Euskal Herriko txoko guzietara ere hedatzen dira Arizkungo enpresaren likoreak, Bilbo, Durango, Ordizia, Tolosa, Iruña... eta baita Espainiara ere, Hueska, Kastellon, Madril, Bartzelonara...

Ildo horretatik, urtetik urtera zabalitzen ari den merkaturatzea dela likoreena arzimarratu ziguten arduradunek. Horrexegatik beti esperimentu berriak egiten aritzen dira. Hibisko-lorea, ezkaia, salbia, mihura eta baita osinarekin ere likore berriak egin dituzte dagoeneko. «Arrosa-petaloeekin egindako likorea prestatua du, baina oraindik ez du merkaturatu. Bi urteko prozesua izanen du, enologoak aztertuta eta hobetuz, dendetan saldu arte».



Luis Miguel LAMERIÑAS

tro gehiago egiten ditugu eta 1.600ko bidoietan sartzen dugu.

Dena den berriena, eta botila berexiena duena mandragora edo urrilo likorea da.

Bai, Nafarroako Gobernuaren eskakizun bat izan zen, Madrileko Fitur ferian parte hartzeko. Inguru hau ordezkatzeko lukeen likore fuerte bat eskatu zigun eta 45 graduko likore hau egin genuen. Sorgin salda ize-na eman genion, sorgin eskualdea izan baita hau. Botila Jose Manuel Ibañezek diseinatu zuen, bertzte botilak bezalaxe. Likoreak belar eta fruitu mota aunitz ditu: patxarana, erregaliza, menta,

eucaliptus ezti aunitz, orujo pixko bat eta alkohola, fuertea da baina hagitza ona!

Eta etorkizunean, edari berriak karrikatze-ko prest zaudete...

Osinarekin adibidez, aitzineria egiten ari gara. Hipertentsioarentzat onada eta proba egiten ari gara. Ikusi beharko duzu zer gehiago nahasi behar zaion eta gero ikusi zer ateratzen den. Lehenbiziko esperimentu egin behar da.

Bertan duzuen dendan ere saltzen duzue...

Likoreez gain, artisau produktuak saltzen ditugu: patea, mermelada, piperrak, zainzuriak, ardoa... dena hemengoa.

“Madrileko Fitur ferian Nafarroa ordezkatu du gure ‘sorgin saldak’, mandragora edo urrilo likoreak”

Lege Gordailua: NA-1324/85
ISSN: 1578-4673
Frankeo Itundua: 34/79
Tirada: 7.100 ale

ttipi-ttapa aldizkaria
Herriko Etxeko Plaza, 1
E-31780 BERA (Nafarroa)
Tfnoa:(+34) 948 63 11 88
Faxa:(+34) 948 63 12 91

www.topagunea.com
ttipi-ttapa@topagunea.com

Jabea: ttipi-ttapa fundazioa.
Presidente: Pello Apezetxea.
Kudeatzailea: Joxemanuel Irigoien.
Zuzendaria: Aitor Arotzena.
Publizitatea: Kulturkari, S.L.
Administrazioa: Amaia Goia.
Erredakzioa: Aitor Arotzena.
Berriemaileak: Mikel Illarregi, Esteban Arotzena, Juana Mari Saizar, Kontxi Klaber, Peio Zestau, Iban Isasi, Patxi Iriarte, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Irazoki, Juan Carlos Mortalena, Xan Harriague, Angela, Ihintza eta Eneko, Nerea Altzuri, Oskar Txoperena, Joseba Olagarai, Nerea Mitxelorena, Aitor Arotzena, Amaia Odriozola, Ainhoa Irazoki, Rakel Goñi.
Kolaboratzaileak: Rakel Amigo, Euskal Herriko Kontsumitzaileen Antolaketak...
Inprimategia: Gertu. **Erakunde Laguntzaileak:** Bera, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Urdazubi, Sara, Azkain eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkarteak, Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea, Zugarramurdiko Akelarre Elkarteak...

Harpidetza sariak:

Hego Euskal Herria	25 €
Espainia	25 €
Ipar Euskal Herria	35 €
Europa	35 €
Amerika	105 €
Baztan, Urdazubi, Malerreka eta Areso	20 €



Aldizkari honek Nafarroako Gobernuaren laguntza jaso du

• IRAKURLEAK MINTZO •

NUPen euskaraz eskubide osoz

Azken urte hauetan euskararen garapena oztotatzeko Nafarroako Gobernuak UPNren eskutik daraman politika aski ezaguna bada ere, une honetan berebiziko jautzia emateko prest daude, hau da, Euskarak Unibertsitate Publikoan duen presentzia eskasa ia erabat debekatu nahi dute euskara NUPen arautuko duen Lege proiektuaren bitartez.

Orain arte Unibertsitateko errektoradutza talde ezberdinek euskarak gizartearen duen presentziari, datuek erakusten duten aurrikuspenei eta UPNA-NUPeko estatu-tuetan onartua dagoen euskararen ofizialtasunari muzin eginez mugak jarri dizkiote euskarazko hezkuntzarako demandari, bertako euskararen presentzia erreala erabat murriztu dute, ikasle euskaldun elebidunen eskubideak borxatuz.

Egoera horrela izanda ere euskarak gaztelaniaren status legal teoriko bera izaten jarraitzen du NUPen, hau da, biak Unibertsitateko hizkuntza ofizialak dira. Hauxe da hain zuzen ere Nafar Gobernuak legebiltzar ekimenarekin aldatu nahi duena eta nahiz eta PSNek UPNren proiektua baztertu eta berea aurkeztu, hau aurrekoaren bikia besterik ez da (horregatik onartu du berehala UPNk). Biek gure Lingua Navarrorum Unibertsitate publikotik desageretzea nahi dute, biek ikasle elebidunak hizkuntza eskubiderik gabe utzi

nahi dituzte Unibertsitatean.

Unibertsitate publikoak funtzio soziala bete behar du eta gizarteak planteatzen dizkion erronkei erantzun behar die. Horretarako kontuan hartu behar ditu Nafarroako egoera soziolin-guistikoa, familia nafar kopuru handi batek egin duen hizkuntza eredu euskaldunaren aldeko hautua, ikasleek hezkuntza eredu horretan jasotzeko duten eskubidea eta abar. Baina errealitatea da bai orain eta areago proposamen hori aurrera ateraz gero, euskarazko eredu hau-tatu duten familia nafarrekiko diskriminazioa handitu egingen dela, baita alde ekonomikoari begira ere, ikasleek euskaraz ikasten jarraitu nahi badute Nafarroatik kanpo joan behar izanen baitute, honek suposatzen duen koste erantsiarekin.

Bestalde, Nafarroako Hezkuntza sistema berak koherentzia osoa galtzen du baldin eta Nafarroako eskoletan erabiltzen den irakaskuntzako hizkuntza bat goi mailako ikasketetatik (Unibertsitate kasu honetan) kanpo uzten bada.

Argi dago gaur egun Euskara, gure Lingua Navarrorum, hizkuntza minorizatua dela Nafarroan eta bere garapenerako aldeko politika behar du.

Eta argi eduki behar-ko genuke ere euskararen normalizazio prozesuak Nafarroan, Unibertsitate Publikoaren beharra duela eta bertan ongi garatzeko bere netako normalkuntza plangintza eta ez UPN

eta PSNek beren lege proposamenekin jarri nahi dioten muga eta debekua.

Guzti honengatik behan sinatzen dugun hezkuntzako erakundeok, D ereduko ikastetxe publiko guztiak, Ikastola guztiak eta beste eredu linguistikoko irakasleek zera adierazi nahi dugu:

1.- Nafar guztiok unibertsitateko ikasketak edozein hizkuntza ofizialean egiteko eskubidea dugu, beraz Nafarroako Parlamentuari zera eskatu nahi diogu, bertan behera utz dezala euskara NUPen arautuko lukeen Lege proposamena.

2.- Nafarroako Unibertsitate Publikoari zera exijitzen diogu: euskarak duen izaera ofiziala edukiz bete dezan eta garatu dezala bere netako euskararen normalkuntza plangintza bat, 1986ko "Euskararen Legearren" Sarrera eta Titulu Preliminarrak azaltzen duten espirituarekin bat egingen duena, hots, Nafarroan euskara berreskuratu eta sustatzeko irizpidez egindako plangintza eta unibertsitate honetan ikasketak euskaraz egiteko eskaera progresiboari erantzun egokia eman-gio diona.

HERRIKOIA, SORTZEN-IKASBATUAK, NIE, IA, CCOO, ELA, LAB, STEE-EILAS.

Drogen inguruan gogoeta

Aintzinako Ttipi-ttapa aldizkarian, «zein errealitate bizi gara?» idatzian, droga gogorrek bertzerik ez dira aipatzen. Dirudienez, hauek bakarrik sortzen dituzte arazoak. Eta alkohola? Desagertu egin al da? Edo honek ez al ditu arazoak sortzen? Droga gogorrek bezainbertze edo gehiago sortzen dute.

Egia da gazte askok drogak hartzen dituela, hala ere, alkohola edaten duten gazteekin parekatuta, talde minoritarioa da. Honek ez du ezer justifikatzen, bale.

Gaur egun gazte normala naiz: lana egiten dut, etxetik kanpo bizi naiz..., ez dakit, bizimodu normala daramat, eta drogak hartu izan ditut. Nahi izanta ere, drogen aurka ezin da ezer egin edo ez da egingen behintzat. Beraz, hor daude-nez eta egongo direnez, edukazio on-on bat ematea bertzerik ez zaigu gertatzen eta hortik aurrera, bakoitzak nahi duena egin dezala. Bertze gauza bat: Benetan us-te duzue drogak gazteon kontua bakarrik dela? mesedez... ireki begiak behingoz.

Egia da psikologoek lana zihurtaturik daukate aurrerantzean, baina ez drogengatik (bakarrik), daramagun bizi erritmoagatik baizik.

Irakurlebat.

Kultur Teknikariak EUSKALDUNON EGUNKARIArekin bat

Euskaldunon Egunkariaren itxierak, adierazpen eta informazio eskubideak urratu ditu, eta horren aitzinean, ezin geldi gaitzeko isilik. Euskaldunon Egunkaria orain 12 urte sortu zenetik, herri honen kultura eta hizkuntza ulertzeko funtsezko tresna bihurtu zaigu. Euskaldunon Egunkariak kulturgintzari irekitako leihoa izan da, babes, eta tratamendu erdugarriak erakutsi ditu, eta kultur agente garen neurrian, ezin gorde dezakegu sortu den egoeraren aitzinean gure ezinegona.

Herri honen alde erakitzea den guztia, ekarpenak egitea, kulturgintza suspertzea, babestu eta bultzatu nahi ditugu. Egunkaria gure lanaren zabalkunderako ezinbertzeko tresna izan da, gure artistei leku berezia egin diena, eta kulturak leku berezia izan du bere orrietan, informazio duin eta txukuna zabalduaz. Aurrerantzean ere, gisako tresnak eduki nahi ditugu eskura, gaur berean sortu den EGUNERO kasu.

Eraso honen aitzinean, beraz, agiri hau sinatzen dugun kultur teknikariak, Euskaldunon Egunkariaren itxieraren ondorioak salatu nahi ditugu, gure babes osoa agertu bertako langileei, eta gure kezka azaldu nahi dugu zuzendaritza taldearen egoeraren inguruan inolako informaziorik ez dagoelako. Herri honek euskarazko prentsa behar duelako, bihar Donostian izanen

Egunkaria behar dugu

Euskaldunon Egunkaria itxi dutela eta, agiri hau sinatzen dugun euskara elkarte eta herri aldizkariak honakoa adierazi nahi dugu:

- Euskaldunon Egunkaria itxi izana euskararen, euskal prentsaren eta adierazpen askatasunaren aurkako eraso da.
- Dei egin nahi diegu euskalgintzari eta euskal gizarte osoari eraso larri hau salatzeri.
- Euskararen normalizazioaren eta euskal prentsaren alde lanean jarraitzeko konpromisoari tinko eutsiko diogu.
- Euskal Herriak euskarazko egunkaria behar du, ezinbesteko tresna baita gure hizkuntzaren normalizaziorako. Euskaldunon Egunkariako langileek euskarazko egunkaria kaleratzen jarraitzeko asmoa dute. Beraz, euskal herritar guztien laguntza beharko dute. Ildo horretatik, guk ere laguntza eskaini eta konpromiso irmoa adierazi nahi diegu, euskarak egunero eta Euskal Herri osoan ahotsa izan dezan.

Manifestuari atxikimendua adierazi dioten elkarte eta komunikabideak:
Iruxulo (Donostia), Bagera Donostiako Euskaltzaleen Elkarte (Donostia), Hitzaro (Ordizia), Manuel Larramendi Kultur Bazkuna eta Aiurri Aldizkaria (Andoain), ...Eta Kitto! Euskara Elkarte eta Astekaria (Eibar), Lagatzu Euskara Elkarte (Zamudio), Aikor Aldizkaria (Txorierrri), Anboto Durangaldeko Astekaria (Durangaldea), Arrikikili Larrabetzuko Euskara Elkarte (Larrabetzu), Ttipi-Ttapa aldizkari eta telebistako langileak (Bera), Irun Iruten Euskara Elkarte (Irun), Lau Haizetara Euskaldunon Elkarte eta Aldizkaria (Erreterria-Orereta), Berton aldizkaria (Mahatserrria), Berbaizu Euskara Elkarte eta Prest aldizkaria (Deustu) Pii- Pilean Euskara Elkarte eta Aldizkaria (Soraluze), Euskal Birusa Euskara Elkarte eta Drogeteniturri Aldizkaria (Ermua), Txatxilipurdi Euskara Elkarte (Arrasate), Maxixatzen Euskara Elkarte eta Aldizkaria (Azkoitia) Elgoibarko Izarra Euskara Elkarte eta Barren Astekaria (Elgoibar), Karkara Euskara Elkarte (Orio), Txaparro Kultur Elkarte eta Txaparro aldizkaria (Zarautz), Goierriarrak Kultur Elkarte (Ordizia), Asapala Kultur Elkarte (Mahatserrria), Dobera Euskara Elkarte (Hermani), Jardun Euskara Elkarte (Bergara) Goierna Komunikazio Zerbitzuak (Debagoiena), Karrikaluze Euskara Elkarte (Atrabaria) Orratz! Kultur Elkarte (Lezo), UK Uribe Kostako Aldizkaria (Getxo) Bizarra Lepoan Euskara Elkarte (Getxo), Euskarabila Euskara Elkarte (Basauri), Loramendi Euskara elkarte (Aretxabaleta), Danbolin Zulo elkarte (Zestoa), Arrasate Euskaldun Dezagun-AED elkarte (Arrasate), Barbaro Euskara Elkarte (Durango), Uztartzen Euskara Elkarte eta Uztarrria Aldizkaria (Azpeitia), Noaui! Euskara Elkarte eta Aldizkaria (Usurbil), GEU elkarte eta Aldizkaria (Gasteiz), Arnasa Euskara Elkarte eta Branka Pasaiaiko herri aldizkaria (Pasaia), Bierrik elkarte, Guaixe eta Oixe aldizkariak, eta Beleixe irratia (Sakana), Gurien Bai Euskara Elkarte (Iurreta) Topagunea Euskara Elkarten Federazioa

gara, Kontseiluak egin deiarekin bat, "Egunkaria aurrera, Bai Euskarari" errateko. Kulturek, oro har, ez dutelako inolako oztopo eta mugarik behar. Euskal kulturak ere ez.

Euskal Herriko Udal Kultur Teknikarien ize-nean: Jon Abril (Bera), Fermin Irigoien (Berriozar), Nieves Beloqui (Noain), Lurdes Arteaga (Zaldibia).

Doneztebeko alkate jaunari:

Orain arte aurkeztutako kekek inolako erantzunik ez dutela jaso ikusirik, berriro ere zurega-

na jotzea erabaki dut. Beharbada, Donezteben bizi ez denak ez du jasaten ari garen arazoaren berri izango. Baina Doneztebe aldera iganderen batean gerturatuko da. Ni tabernen ondoan bizi naiz eta igande goizetan nire etxe inguruan denetatik aurki daitezke: kondoiak, konpresak, puskatutako botilak, basoak, e.a. Zenbait tabernatan komunak itxita daude eta jendeak kalean egiten ditu bere beharrak.

Hau guztia ikusirik, nazka ematen dit etxetik ateratzea eta, are gehiago, umeak bertan jolastu ikustea. Egoera honen arrazoi nagusia heziketa falta dela esatean nirekin ados egongo zarelaren pentsatzen dut, baina hala ere udaletxeko langileek behar bezain ondo ez dutela garbitzen uste dut.

Udaltzain batekin hitz egin ondoren zera esan zidan: gu bizi garen lekuan ez dagoela urrezta-keta-hartunerik eta mangera ez dela bertara iristen.

Bizilagunek behin baino gehiagotan garbitu behar izan dugu kalea eta ematen duenak jaso ere egin behar duela uste dugu. Urtero, Eguberrietan, hitz politetz betetako zorian-gutuna jasotzen dugu. Noiz, ordea, ekintzak?

Auzotar bat.

Oharra: zuk maiatzean amaitzen duzun eta berriro aurkezteko asmorik ez duzula diotenez, esandako guztiak ez dizu asko axolako, baina guri bai.

• PRENTSATIK BILDUTAKOAK •



Egunkaria 2003-02-20

«Poesia idazten dut, ez naiz poeta; baserrian lan egiten dut, ez naiz baserritarra; harria jasotzen dut, ez naiz harri-jasotzailea; aktore lanak egiten ditut, ez naiz aktorea. Saltsa guztietan mugitzea tokatu zaion pertsona bat naiz. Nik urte asko daramatzat harriak jasotzen, baina, harriak jasotzeaz gain, beste gauza asko egin ditut nire bizitzan».

Iñaki PERURENA
Leitzako harrijasotzailea
Egunkaria 2003-02-20

«Turismoari beldurra galtzen ari dio jendeak eta gure garapenerako aktibidade interesgarria dela ikusten du, lanpostuak sortzen eta eskualdeko bizi-kalitatea hobetzen laguntzen duela».

«Defendatzen dugu proiektua turismo jasangarriarena da, natura eta gure herrialdeko bizimoduak errespetatuz, eta hori lortzen ari gara»

Xebe TXOPERENA
Bertizko lehendakaria
D. Noticias 2003-02-19

• 11 GALDERA LABUR •



Juan Antonio IBARRA *Sunbillako txirrindulazalea*

Bizikleta, poteoa edo bizi-poteoa?

Lehenbizi bizikleta, baina egin genuen bizi-poteoa ere ongi atera zen.

«Edaten baduzu, ez gidatu», bizikletarendako ere balio du?

Bizikletan eskuetan akautu genuen denok, bizikleta galduta ere bai.

Tourra, telebistan edo Piriniotan?

Piriniotan eta Alpetan ere bai, azken 7 urtetan. Giro ikaragarria izaten da, baina ikusteko hobe telebistatik.

Zerk emozionatu zaitu gehiago, Indurainen garaipenak edo Laisekak Euskaltelekin lortutakoa?

Biak ikaragarriak izan ziren.

Txirrindularitza, futbola edo pilota?

Ikusteko lehenik pilota, eta gero txirrindularitza.

Txirrindulari, futbolari eta pilotari bat?

Indurain, futbolean Errealekoa naiz eta Kovacevic; eta pilotan, gibelean Beloki eta aitzinean Aimar Olaizola.

Nork irabaziko du eskuz binakako pilota txapelketa?

Larri ibiliko da. Beloki hagitz ongi ikusten dut aurten

Sunbillako iñauteriak edo bestak?

Bestak ere politak dira, baina iñauteriak... azken urteetan mundialak!!!

Zer eman dio Sunbillari bariantek?

Lasaitasun handia.

...eta zer kendu dio?

Bidasoa auzoan eta herri ondoan labrantzako lurrak, lau sos ordainduta.

Trenabidea, txirrindularientzat edo autoentzat?

Txirrindulari eta oinezkoentzat, baserritarrak errespetatuz.

GRUPO TANATOR O T A D E A
IRACHE
MALDAERREKA, S.L.

**FUNERARIA
ZERBITZUAK**
DONEZTEBE BEILATOKIA

Bortzirriak eta Malerrekan
24 orduko zerbitzua beilatokian
eta etxean prezio guztietan

Trasladoak Iruñea, Donostia, Irungo
ospitaletatik edozein herrietara

☎ 948 637404
☎ 900 704704

Zure ingurua klase guztiko insektuz
(xomorro, zinaurre, armiarna, kukuxu...) eta
arratoi-xagutxoaz garbitu nahi baduzu, deitu!
Gu arduratuko gara horretaz.
Termita eta Polillen kontrako tratamendua

BERA
DESINFECTACIONES
☎ 948630155
BERA

BERA
☎ 948631076 • **BERA**

PIKABEA
Molinero drogerian *pinturak*
galdetu

**Etxe barneko hezetasun eta kondentsazio
arazoak moldatuko dizkizugu**

- Fatxadak
- Barne dekorazioa
- Pintura orokorrean

Izpoz 8 • ☎ 948 630240 - 948 631495 • **BERA**

ZJ
Zalain
jatebrea

☎ 948631076 • ☎ 948 63 29 47
Bera • Nafarroa

ERRETIRATUAK

Xabier, Bardeak eta Benidorm bisitatuko ditu Arkupeak erretiratuen elkarteak

Maiatzaren 8tik 21era izanen da Benidormeko bidaia

ttipi-ttapa

Arkupeak erretiratuen elkarteak heldu diren hilabeteetan eginen dituzten bidaien berri eman du. Hasteko, martxoaren 6an Xabiereko gaztelura joanen dira. Orduata aldera bazkaria izanen dute Xabier jatetxean honako menu honekin: marisko koktela, langostinoak plantxan, zaintzuriak, fritoa, tigreak, kalamarak, piper beteak, etxeko nahaskiak, hojaldrea espinaka eta ganbekin, bildoski errea letxuarekin, tarta etxeko izozkiekin, txanpaina botil bat lau lagunentzat, ura, ardoa, kafea eta kopa normalak. 16:00etatik 18:15etara dantzaldia izanen dute eta arratsaldeko 18:30etan abiatuko dira autobusak bueltan.

Apirilaren 3an berriz, Erribera bisitatzeko asmoa dute erretiratuek, Castejon eta batez ere, Bardeetako Parkea bisitatu. Aguilares, Cañada Real de los Ron-



ARTXIBOKOA

Udaberri aldean hainbat bidai antolatu ditu Arkupeak elkarteak. Xabierera joan ondotik, Costa del Solen hamar egun egonen dira, apirilean Erriberara joanen dira eta maiatzean Benidormera.

caleses, La Raya, el Rayón, Piskerra, Lurrezko Gaztelua, Yugoko Amabirjinaren ermita eta bertze leku ezagunak ikusiko dituzte. Castejonek bazkaldu eta ondotik bazkaria izanen dute. Izen emateak martxo-

ren 20tik 26ra eginen dira. Horretarako Doneztebeke egoitzara edo herrietako ordezkariengana jo behar da.

MAIATZAREN 8TIK 21ERA BENIDORMERA
Bertze aldetik, maia-

tzaren 8tik 21era Benidormera joanen dira erretiratuak. Bidai osoaren prezioa 420 eurokoa da logela bikoitzean. Bakarka balitz, gaueko 12 euro gehiago ordaindu beharko litzateke, 168 euro gehiago

guzira. Izen emateak martxoaren 3an, goizeko 11etatik ordubateara egiten ahal da 948 450878 telefonoan. Martxoaren 5ean, erdia, hau da, 210 euro ordaindu beharko dira Arkupeak elkarteak Donezteben duen bulegoan edo herrietako ordezkariari. Bertze erdia, modu berean ordaindu beharko da apirilaren 7an. Benidormeko Fenicia hotelean egonen dira, pentsio osoan.

Maiatzaren 8an goizeko 6,45etan abiatuko dira autobusak Irunetik eta errepide nagusian bilduko dituzte bidaiariak. Baztan, Leitza eta Goizueta aldekoak bira atara behar duten izen ematerakoan jakinaraziko zaie.

Gogoratu behar da, azkenik, Arkupeak erretiratuen elkarteak Andaluciako Costa del Solera hamar eguneko bidaia antolatu du martxoaren 18tik 27ra, beraz, harat-honatean segitzeko intentzioa dute.

Lanchas
PARKETAK - TARIMAK
KUTXILLATZEA ETA BERMIZATZEA
ESTALDURA OROKORRAK
Bera - Tfnoa: 948 630 735 - 607 406 781

JOSE I. GONZALEZ ENGUITA

PINTURA LANAK OROKORREAN

666 235 466

948 630 683

Bidasoa 49 - 1.ezk • 31780 BERA

ERROTAZAR
Harategia
Eztegara 3
Tfnoa: 948 630 198
BERA

LESACA

BERA

Udalak onartu du hasiera batez Hirigintza Udal Plan berria

Alegazioak egiteko, jendaurrean egonen da martxoaren 7raino

Amaia eta Ainhoa

Abenduaren 30eko udal batzarrean, Chocarro eta Urmeneta arkitektoek aurkeztutako Hirigintza Plan berriaren proiektua hasiera batean onartu zuen Udalak aho batez. Otsailaren 27an, Kultur Etxean, arkitektoak egon ziren jendearen zalantzak eta kezak argitzeko, eta martxoaren 5etik 7ra (eguerdiko 13:00ak) bitartean Herriko Etxean ikusten ahal da, jendeak bere alegazioak egiteko. Hala ere, Berako Hirigintza Plana behin betikoz onartu arte hilabete batzuk joanen dira oraindik.



ARGAZKIA: AITOR

Egunkaria Aurrera

Egunkaria itxi zutenetik, hainbat herritan bezala, Beran ere honen aintzinean desadostasuna adierazi du jendeak. Horren adibide bat, otsailaren 26an Herriko Etxeko Plazan egindako kontzentrazioa izan daiteke. Asteazken honetan, martxoak 5, Bortzirietan Egunkariaren aldeko plataforma sortzeko bilera egitekoa zen Kultur Etxean

FLASH

Udal haurtzaindegia

Joan den abendurako bukatua egon behar bazuen ere, bi hilabete barru akautuko omen du obra egiten ari den enpresak. Behin obra akaututa, udalak haurtzaindegiaren esplotazioa lehiaketa publiko-ara aterako du. Gero, enpresa horren esku geldituko da Haurtzaindegiaren martxa. Hori ikusita, heldu den ikasturteari begira euren eskaintza zabaltzeko erabakia hartua dute Labiaga ikastolak eta Rikardo Baroja Eskola Publikoak. Ikastolaren kasuan 0-3 urteko umeak hartuko dituzte heldu den ikasturtean ere, eta Rikardo Barojakoen kasuan, 2 urtekoak hartuko dituzte. Momentu honetan ezin jakin Haurtzaindegiaren eskaintza ere egonen den.

Herriko bideen inbentarioa

Duela lau urte inguru enpresa bat hasi zen Udalarentzat Berako bideen inbentarioa egiten. Inbentario horretan herriko bide guztiak agertzen dira, zein sailkapena duten, ezaugarriak, etab. Orain, herriko bideen planoak Herriko Etxean ikus daitezke martxoaren 7a bitartean. Hirigintza Planaren kasuan bezala, alegazioak egiteko aukera dago egun bera arte (bide bat gaizki klasifikatua dagoen, bide bat edo bertze falta den...).

EMAKUMEAREN EGUNA

Hainbat ekitaldi antolatu du Uxua Emakume taldeak aste honetan

Berako Uxua emakume taldeak hainbat ospakizun prestatu ditu Emakumearen Egunaren inguruan, Berako Kultur Batzordearekin batera.

Honela, ortzegunetik igandera, martxoaren 6tik 9ra emakumeek egindako lanen erakusketan izanen da Kultur Etxean, 17:00etatik 20:00etara eta aste-

buruan baita goizez ere, 11:00etatik 13:00etara.

Ortzegunean, 20:30etan «El Circulo» filme iraniarra izanen da ikusgai Kultur Etxean, zineklubaren programazioaren barnean. Irango emakumeen kronika gordina egiten da filmean.

Ortziralean, 19:00etan solasaldia izanen da Kultur Etxean.

«Komunikatzen ikasi» gaiaz ariko dira IPES erakundeko Miriam Perez eta Cristina Miguez.

Larunbatean, 21:00etan emakumeen afaria izanen da Zalain jatetxean. Bertan parte hartzeko 948 630967 telefonoan eman behar da izena.

Igandean, azkenik, Berako emakumez osatutako Emaizta antzerki taldeak bere azken lana aurkeztuko du Kultur Etxean, arratsaldeko 7etatik aitzinera.

Ortziraletan, 10etan
Mus Txapelketak

ERREKALDE
ostatua

Tfnoa: 948630259 - BERA

ANSONEA jatetxea

Eguneroko menua eta karta
Asteburu eta jai egunetan menu berezia

Foruen Plaza 1 • © 948 631155 • BERA

© 948 631462
Altzate I • BERA

Xirail

LESAKA

Carmelo Etxarte da San Fermin elkarteko presidente berria

Otsailaren 15ean egin ziren hauteskundeak

Aitor AROTZENA

San fermin erretiratuen elkarteak zuzendaritza batzorde berria aukeratu zuen otsailaren 15ean egindako urteko batzarrean. Gaur egun 426 bazkide ditu elkarteak eta hurrengo bi urteetako zuzendaritza berria hautatzeko 93 lagun hurbildu ziren boza ematera. Hauetatik 86 Carmelo Etxarteri eman zioten botua eta bera izanen da presidente berria. Juan Ramon Ordoki izanen da lehendakariordea, 55 boturekin. 80 botu eskuratu zituen Maria Luisa Pellejero izanen da diruzaina eta Manuel Lain idazkari, 64 boturekin. Hiru bokal berriak ere izendatu zituzten, Amparo Berlanga 66 boturekin eta Modesto Ubiara eta Patxi Zapirain hirurogeita bana boturekin.

Joan den urtean 21.855 euroko diru-sarrerak eta 21.671 euroko gastuak izan zituzten, beraz, 184 euroko superabitarekin itxi zuten urtea. Aurten, 24.000 euro inguruko aurrekontua izanen dute, Carmelo Etxarte lehendakari berriak jakinarazi digunez.



ARGAZKIA: AITOR

Carmelo Etxarte, San Fermin jubilatuen elkartearen lehendakari berria. Aitzinetik sei urte egin ditu juntan, idazkari gisara. Egun bakarreko bidaiekin, txapelketa ezberdinekin eta bazkari-afariekin segituko dute erretiratuen elkartearen. Iñauterietako igandean egindako afariaren ondotik, martxoaren 19ko aita eta aitxatxien eguneko bazkaria prestatzen ari dira orain.

KIROLA

Rafa Maritxalar izena hartuko du Batzokiak antolatutako IX. Herri Lasterketak

2000. urtean antolatu zuen Batzoki Elkarteak zortzigarren Herri Lasterketa eta bi urteko atsedenaldiaren ondotik, apirilaren 6an egingen da bederatzigarren edizioa. Ibilbidea ez da aldaketa handirik izanen, baina bai lasterketaren izendapenari dagokionez. Izan ere, Batzoki elkarteak omenaldi xume bat es-

kaini nahi dio Rafa Maritxalar herriko korrikalariari eta hemendik aitzin bere izena eramanen du Lesakako Herri Lasterketak.

1997tik honat sortutakoek 250 metroko lasterketa izanen dute; 1995-96koek 400 metrokoa; 1993-94koek kilometro batekoa; 1991-92koek 1500 metrokoa; 1989-90koek 2 kmkoa, gutxituek

FLASH

Kultur Etxea

Urtarrilaren 23an egindako udal batzarrean, karmeldarren komentu zaharreko elizari dago-kionez hirigintzako udal planaren aldaketa puntuala behin-behinekoz onartu zen, EAJ-EAko sei zinegotzien aldeko botoarekin eta gainerako lau korporaziokideen abstentzioarekin. Espedientea jendaurrean egon den bitartean alegazio bakarra aurkeztu zen, herriko guraso elkarte eta kultur talde ezberdinen izenean egindakoa. Bertan, jendaurrean egoteko epea luzatzeko eta azalpenak emateko solasaldiak antolatzea eskatzen zen. Alkateak erran zuenez, «*ilbeltzaren 20an egin zen bilera publikoa herriko kultur taldeekin eta bertan aurkeztu zen Kultur Etxearen proiektua*». Txoltxanek erran zuenez, Kultur Etxea lehenbailehen egitearen alde daude, «*baina lesakarren iritzia ez da kontuan hartu*».

eta kadete mailako neskek bezalaxe. Kadete mailako mutilek 4 kmko ibilbidea izanen dute; juniorrek, juniorrek, senior mailako emakumeek eta beteranoek 6 km egin beharko dituzte eta senior mailako gizasemeek, federatu nahiz herrikoiek, 8 km egingen dituzte. Izen emateak martxoaren 14a arte egingen ahal dira 948 627522 telefonora deituz, baina egun berean ere izanen da apuntatzeko modua.

kixkur
leapaindegia
 Tel: 948 637429
 Bittiriako Plaza, 3 behea
LESAKA

IRU BIDE
 ERRETEGIA
 Tfnoa: 948 637 127
LESAKA

ANA
 janaridenda
 Bittiria 41 • 948 637518 • **LESAKA**

XATURETXEA
 ZEHU
 JATETXEA
 Tfnoa: 948637027 **LESAKA**

«USOA»
 NEKAZARI KOOPERATIBA
 Ganaduairentzat
 pentsurik egokiena
 Tfnoa: 948635214
ETXALAR

ETXALAR

Jabier Iriarte izanen da Kultur Etxeko arduraduna

Uda honetan igerilekuko lanak egiteko deialdia ireki du udalak

Joseba eta Nerea

Hainbat hilabetez esperoan egon ondotik, 2002ko ekainaren 30ean inauguratu zen ofizialki Kultur Etxea. Ordurako, Jabier Iriarte 24 urteko herritarra lanean ari zen bertan, beka bidez puntu teknologikoren arduraduna izatea lortu zuelako. Urte bat baino gehiago lan horretan ibili ondotik, Kultur Etxeko arduraduna izateko gainditu beharreko probetara aurkeztu zen. Hiru izan ziren lanpostu honetarako izena eman zutenak baina hauetako bat baztertu egin zuen udalak, beharrezko baldintzak betetzen ez zituelako. Etxalarko Jabier Iriarte eta Berako Iñigo Retegek egin zuten proba otsailaren 17an. Iriarte izan zen puntu gehien lortuz lanpostua eskuratu zuena. Hurrengo astean sinatu zuen egun erdiko lan-kontratua eta honekin batera Kultur Etxeko ordutegia aldatu egin da. Hala, otsai-



ARGAZKIA: NEREA MITXELTORENA

Jabier Iriarte puntu teknologiko arduraduna izan da orain arte.

laren 24tik aitzinera 16:00etatik arratsaldeko 19:40 arte dago irekia.

Udal eraikinetako seinaleak

Badira hilabete batzuk herriko Euskara Batzordeak Udalari, bere esku dituen eraikinetan errotulazioa paratzeko proposamena luzatu ziola. Aurrekontuan di-

rik ez zegoela eta, urte hasierarako utzi zuten lan hori eta urtea hasi bezain abudo, urtarilean bertan, "Okindegia", "Kontsultategia" eta "Udaletxea" adierazten dituzten kartelak paratu zituzten dagozkien eraikinetan. "R. Zunarren Pintura Publicitaria S.A" izan da lan hau egin duen enpresa eta 828,24 euro kostatu zaio lana burutzea.

Errepide Seinaleak

Euskara Batzordeak ere errepide-seinaleak paratzeko eskaera egin zion Udalari. "Paskin" enpresak hartu zuen lan hori egiteko ardura eta otsailaren lehenbiziko astean jarri zituzten bideak adierazten dituzten seinaleak hala nola, Hilerria, Landagain Eskola, Usategiak, Zugarramurdi...

FLASH

Iñauteriak Larraburuan

Joan den ortzegunean haurrek eman zioten hasiera aurtengo iñaute bestari eta nagusiagoak hartu zuten erreleboa astelehen eta asteartean. Hauekin batera, Larraburua jubilatutako elkarteko kideek ere ez dute besta egiteko aukera galdu nahi izan eta euren erara ospatu dute, otordu baten inguruan. 60 lagun inguru bildu ziren Larraburua egoitzan iñauteguna elkarrekin pasatzera eta bide batez urtariletik martxan duten Magra sariketako finala jokatzera. Lerro hauek idazterakoan ez dugu irabazleen izenik eskuartearen baina hurrengo alean emanen dizuegu hauen berri.

Igerilekurako langileei deia

Udalak igerilekuen funtzionamendu, garbiketa eta mantenimendu lanak egiteko deialdia ireki du. Bi langile behar dira eta interesatuek bi era dituzte proposamena aurkezteko. Lan kontratuaren bidezkoa bat eta autonomo kontratuaren bidezkoa bertzea. Eskerak udal idazkaritzan aurkezteko epea martxoaren 20ko 12:00etan akabatu da.

KOXKILA OSTATUA
Berrito mus Koxkilan!
Astero opari ederrekin

Zarandia, 4 - LESAKA

LOREDENDA

Albistur, 39-K
☎ 627542
LESAKA

- bitxikeriak •
- opariak •
- enmarkazioak •

LEGARRA

Prentsa _____	Fax publikoa _____
Liburuak _____	Plastifikazio _____
Tabakoa _____	a _____
Opariak _____	Enkuadernazi _____
Kukuxumusu _____	o _____
kamisetak _____	lanak _____

Egunero deia

Tfnoa./Faxa: 948 63 70 30 • Albistur, 9 •

HERRIKO
BIBLIOTEKA - JATETxea

Albistur, 10 • 48100 • LESAKA
☎ 948 63 70 30

IGANTZI

Herria ezagutzuz

70 bazkide inguru Biltokiko urteko Batzar Orokorrean

Adineko bazkideek auzolanik ez egitea erabaki zuten bilkurari



Oskar TXOPERENA

Otsailaren 15ean egin zen Biltoki elkarteko urteko batzar nagusia eta 200 bazkideetik 70en bat bertaratu ziren. 2002ko kontu eta ekintzen berri eman zuen Juntak bilkuraren hasieran eta aitzinera begira dituen asmoez ere mintzatu ziren, ordenagailu berriaren erosketaz, errate batek. Bi gai izan ziren eztabaidatuak: Berogailuaren ordutegi edo erabilera eta adineko bazkideen auzolanak. Berogailuaren ordutegiarekin orain arte bezala segitzea erabaki zen eta, luze eztabaidatu ondotik, 75 urtetik goitiko bazkideak elkarteko auzolanetatik libratzea ere bai. Azkenik, junta berritzeari ekin zitzaion eta hauexek izan ziren aukeratutako juntakide berriak: Jose Luis Sirera izan den lehendakariordea, Maider Telletxea diruzaina, Gema Sein idazkaria eta



ARGAZKIAK: OSKAR TXOPERENA

Igantzi Biltoki Elkarteko Junta zahar eta berriko kide gehienak ageri dira argazkian. Ainhoa Antxordoki, Guillermo Antxordoki, Maider Telletxea eta Juan Sein falta dira bakarrik.

Guillermo Antxordoki, Juan Sein eta Ismael Iturbide bokalak.

Iñauteak

Izugarrizko koadrilla, 40 mozorrotik goiti, ibili zen ortziral eta larunbatean etxez-etxe. Larunbat arratseko ikuskizuna, ederki atera zen eta plaza ingurura hurrengo bi urtetan lehendakariordea, Maider Telletxea diruzaina, Gema Sein idazkaria eta



Dionisio Txoperena Ameriketara hain famatua egin den goizueta arzaia bitan izan genuen. Nicolas Etxarte hemen dagoela aprobetxatuz, lagunak direnez, elkarrekin bazkartzera elkartu ziren Biltokian. Argazkian Dionisio ageri da Etxarte anaiekin (Nicolas, Bixente eta Jose Luisekin).

izan genuen. Hurrengo eguneko itzulian, berriz ere ingurura etorriko gara. Hurrengo eguneko itzulian, berriz ere ingurura etorriko gara. Hurrengo eguneko itzulian, berriz ere ingurura etorriko gara.

Errementaldegia

Lehenengo batean aipatzen genuen larru fabrikaren inguruan zegoen Errementaldegia, Latsaga edo Matxitxurri (bi izenak erabiltzen ziren) erre-karen eskuinaldean, Mikelenearen ondoren. Ez zen etxe handia: «siete metros y ochenta y cinco centímetros de frente y diez metros y noventa centímetros de fondo».

Parrokiko artxiboan ageri den lehendabiziko aipamena 1630koa da: «*Maria de Eliçatea, de la casa de Errementaldegia*».

XVIII. mendeko informazio ez dago ia batere, baina XIX. mendean hasieran jabea Martin Jose Barberenarena zela badakigu. Honen alaba, Maria Estefania, Juan Bautista Iguzkiaguirre Sampaul lesakarrarekin ezkondu zen 1828a inguruan eta orduantxe sortu zen, hain zuzen ere, Iguzkiagirretarren igantzi-ko leinua, hauen semea Antonio Maria baitzen Iguzkiagirre Telletxea eta Iguzkiagirre Irigoien familietako ataxi. Ez zuen etxe honek XX. mendea ezagutu, 1900ko katastroan baratzea bakarrik aipatzen baita Julian Yelaren izenarekin: «*Huerta de Rementegua*».

SAROB
okindegia 
SANDERS Pentsuak
Eztegara 41, Tfnoa: 948 630 899 - BERA

Alberto RETEGI
abokatua
Altzate 17 • BERA • ☎ 948 630 763

ATM S.A.

AUXILIAR DE TRANSFORMADOS METALICOS, S.A.

- Txapa mozketa eta tolestea 6 metro bitarte, neurria eta diseinuaren arabera
- Enbalaketa elementuak eta flejeak.
- Ate metalikoak (baskulante, korredera, gillotina...)
- Aireadoreak (estatikoak, erregulagarriak...)

Igantzi Benta • ☎ 948 637 411 • Faxa: 948 637 313

ARANTZA

Mozorroen arteko herri kirol saio berezia iñautetako berrikuntza izan da

Besta Batzordea lanean hasi da orain

Nerea ALTZURI

Otsailaren hondar asteburua hurbiltzearekin batera, herriko 24 mozorro zuriek egitaraua lotua zuten ortzegun, ortziral eta larunbaterako. Adin guzietako herritarrentzat izan da aurten ere zer egin: mozorro zuri gazteen eta eskolako lagunen eskeak herria inguratuz trikitalari eta panderojoleen laguntzaz; 40 inguru emakumek urteroko afaria ortzegunean; Mikel Salaberri eta Jallisko Banden dantzaldiak ortziral larunbatean Herriko Etxeko gorapean; haur mozorrotuen desfile koloretsua larunbat arratsaldean... eta larunbatarekin ari garela, gero, mozorro zaharrenek eta gazteen arteko herri kirol desafioa frontoian. Inork ez genekien nondik norakoa izanen zen ekitaldia. Xehetasun gal-

dezka ibili eta "sorpresa" zela erraten zuten mozorro antolatzaileek. Jendetza bildu zen pilotalekuan herri kirol jardunaz gozatzeko. Mozorro guziek jendea agurtuta, Aitor Telletxea mozorroak aurkeztu zituen mozorro gazteen eta zaharrenek taldeak eta zereginen berri eman. Proba zinez berexiak prestatu eta aurrera eraman zituzten herriko gazteek:

Txokor biltzea bikoteka (Karretilan eserita zegoenak bildu zituen txokorrek, bertze laguna karretila gidari izanik); Iratze bola haundiak aintzinean hartuz bikoteka lasterkaldia markatutako ibilbidean; Belar idorrezko maindiren zamak bizkargainean. Hirukoa talde bakoitzean, frontoiari buelta eman lagun bakoitzak; Artile mozketa talde bakoitzetik ordezka-



ri banak; Garagardo garrafen bizkarreratzea hiru alditan; Motozerrarekin egur korteak. Erakustaldia mozorro gazteenek irabazi zuten. Ondotik errifon zozketa egin zen. Hiru sariak herrian gelditu ziren: Hipolito Ajestak, Xabi Tabernak eta Natalia Goñik hartu zituzten, dirua, oilaskoak eta afariak.

Gero Juanito Bergara eta mozorroen arteko motozerra lehia izan zen, gazteek irabazi zutelarik apostua.

Tanpetaraino bete zegoen Aterpe ere. Mozorrotako jendea afaltiarren artean izanta, eta Jon Maia eta Aitor Mendiluzeren mahaiaz-mahaiko bertsoen harira, giro polita izan zen larunbat arratsean. Bakoitzak bere besta egin zuten gero.



Argazkiak: Joseba Olagarai

Goitian, umeak mozorroekin. Beheitian, artile mozketa proba herri kirol saioan.

Besta batzordea lanean

Joan da aurtengo iñautialdia eta etorriko dira Amabirjin bestak. Abuztua urruti dagoela ematen badu ere, lehenagotik bestetako egunetan izanen diren egitarauen osagaiak lotu behar dira. Joan den ortziralean, hilaren 28an

Herriko Etxeko ordezkariei eta herritarrekin osatutako batzordeak bilkura egin zuen. Bilera gehiago egin behar dira eta era berean, zenbat eta lagun gehiago izan lanerako, orduan eta hobe. Argi eta garbi gelditu da beraz bilerrak idekiak direla herritar ororentzat.

GOYA
JOSTAILUAK
JANTZIAK
OPARIAK
ERREMINTAK
Altzate, 5 • © 948630083 BERA

BEINTZAko OSTATUA
© 948 450 014
BEINTZA-LABAIEN

EKAITZA
Hostala • Kafetegia
Gelak TB eta bainuarekin
Terraza eta plater konbinatuak
Plaza Berria, 13 ☎ (948) 627547 **LESAKA**

TOLDOAK SALMENTA-KONPONKETA-ALOKAIRUA-ERROTULAZIOA
ALFONBRAK SALMENTA
PERTSIANAK MOTORIZATUAK, MOSKITERAK, VENECIANAK, etabar...

BORTZIRIAK



GARA/ D. NOTICIAS

Guardia zibila Egunkariaren egoitza ixten eta otsailaren 22an Donostian egindako manifestaldiaren irudiak.



Euskaldunon Egunkariaren aldeko akordioa hartu zuen Euskara Mankomunitateak

Atxiloketak eta egoitza ixtea «inolako funtsik gabe» egin direla dio

ttipi-ttapa

Bortzirietako Euskara Mankomunitateak, «Euskaldunon Egunkariaren kontra egindako erasoaldi bortitza dela eta», langile, senide eta komunikabidearenganako elkartasun eta atxiloketen gaitzespen akordioa onetsi zuen otsailaren 24ko bilkuran.

Zehazki, «atxilotutakoen familiei eta Euskaldunon Egunkariko langileei elkartasuna» helarazten die Mankomunitateak lehen puntuan, «baita Argia aste-kariari, Ikastolen Elkarteari, Jakin aldizkariari eta Euskalgintza Elkarlanean Fundazioari ere». Modu berean, «atxilotutakoak berehala askatzeko» exijitzen

du. Bertzalde, Euskaldunon Egunkariko langileen adorea txalotu nahi du Mankomunitateak, «gertatutakoak gertatuta eta oztopo guztiak gaindituta, euskaldunok egunero euskarazko prentsa izaten jarraitzea bermatu digutelako».

Bigarren puntuan, «egindako atxiloketak eta egoitzen ixteak erabat gaitzetsi eta arbuia-tzen» ditu Bortzirietako Euskara Mankomunitateak, «inolako funtsik eta oinarririk gabe egin baitira». Horregatik, gobernuari eta epaileei eskatzen diote egoitzak berehala irekitzeko eta Euskaldunon Egunkariari bere ohiko jardunarekin jarraitzen uzteko.

Euskara Mankomu-

nitatearen ustez, «eraso honek oinarri-oinarriko giza eskubideak urratu ditu, bertzeak bertze, errugabetasun pre-suntzioa, adierazpen as-katasuna eta hizkuntz eskubideak. Estatu es-painiarreko gobernuak eta epaileek berriz ere argi eta garbi erakutsi dute euskara eta euskal kultura sustatzeko nahiz Euskal Herria eraikitzeko proiektu oren aurka jotzeko asmoa».

Mankomunitateak onetsitako idatziaren arabera, «euskarak eta Euskal Herriak Euskaldunon Egunkaria behar dute, horien normalizazio eta garapenerako ezinbertzeko tresna baita». Horregatik, mankomunitate hau Eus-

kaldunon Egunkariko harpidedun eta akzio-dun izan da hasiera-hasieratik. Hemendik aitzinera ere euskarazko eguneroko prentsa bul-tzatzeke konpromiso sendoa hartzen du.

Euskaldunon Egunkaria ez ezik, Euskal Herriko bertze egitasmo anitz gizartearen, euskaltzaleen eta euskalgintzaren lanari eta diruari esker atera dira aitzinera, Euskara Mankomunitatearen errane-tan. «Oraingo honetan ere horrela izanen delakoan gaude. Beraz, Bortzirietako eta, oro har, Euskal Herriko herritarrei Euskaldunon Egunkariaren aldeko konpromiso irmoa hartzeko dei egiten diegu».

PAGOLA
TXISTORRAREN
IZENA
 © 948 630 054
 Altzateko Plaza, 2
BERA

MALERREKA

Unibertsitateko euskara legearen kontrako geldialdia egin zuten irakasle eta langileek

Otsailaren 26an Donezteben bildu ziren Malerrekako eskoletako ordezkariak

ttipi-ttapa

Doneztebeko San Miguel Lehen Hezkuntza eskolako, Mendaur Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza Institutuko eta Malerrekako eskola unitarioetako hogeiren bat irakasle eta langile, Nafarroako Gobernua atera nahi duen unibertsitate publikorako euskara legearen aurka protesta egiteko elkartu ziren otsailaren 26an Donezteben. Izan ere, irakasle eta langileen ustez, «gure irakasleak eta zuen seme-alabek ezin izanen dute goimailako ikasketak euskaraz egin». Horren ondorioz, bi orduko lan uztea ere egin zuten, «egoera hori onargaitza dela uste baitugu» eta jakinarazi zuten, «arazoa ez da gurea bakarrik, guztiona baizik».

Bertso-bazkaria martxoaren 8an Doneztebeko Aranzokon

Martxoaren 8an ber-



ARTXIBOKOA

Donamariako udal hirigintza plana ikusteko modua izanen da martxoaren 14a arte, astelehen, asteazken eta ortzegunetan 13:00etatik 16:00etara. Etorbizunean herrian eginen diren eraikuntzak plan honen arabera eginen dira.

tso-bazkaria antolatu da Aranzoko elkartean, Sustrai Kolina eta Amets Arzallusekin. Arratsaldetik 2:30etan izanen da bazkaria eta txartelak 20 eurotan salgai daude Titi Ostatuan eta Amezti Ostatuan. Txar-

telak martxoaren 6a baino lehen hartu behar dira.

Emakumearen Eguneko afaria antolatu du Ezpelurak

Martxoaren 8an

Emakume Langilearen eguna ospatuko dela eta Malerrekako Ezpelura Emakume taldeak afaria antolatu du Doneztebeko Amezti jate-txean martxoaren 7an. Dantzaldia ere izanen dute ondotik eta txarte-

len prezioa 24 eurokoa da. Interesatuak martxoaren 5a baino lehen eman behar dute izena jate-txean berean, horretarako 10 euroko seinalea utzita.

Donamariako udal hirigintza plana ikusgai

Donamariako udal hirigintza plana jendarearen ikusteko epea zabaldu egin du Donamariako Udalak, Ricardo Sagasetak otsailaren 20an sinatutako erabakiaren arabera. Interesatuak martxoaren 14a arte joaten ahal dira Herriko Etxera, astelehen, asteazken eta ortzegunetan, 13:00etatik 16:00etara proiektua ikustera eta beharrezkoak ikusten dituzten moldaketak proposatzeko. Etorbizunean Donamarian eginen diren eraikuntza guztiak plan honen arabera eginen dira, beraz, garrantzitsua da ahalik eta gehien gogokoa izatea.

ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKO ETA LABORALA

LESAKA:

• Astelehenetik asteazkenera 9etatik 13tara eta 15etatik 19etara
• Ortzegun eta ortziraletan, 8etatik 15etara
Non: MALDAERREKA S.L., Bittiria 6 • Tfnoa: 63 70 50

BURLATA:

ARTEKARI, S.L., Tfnoak: 133328 • 133346. Faxes: 133713
Non: La Viña karrika, 4-behea • 31600 BURLATA

- Langile Autonomoak
- Nekazariak eta mendi-langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-kontratutarako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitopenak
- Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
- Bideragarritasun planak eta aurrekontuak

MEDIKUNTZA NATURALA NATUROPATIA

ONDORIOETATIK INDARTZEKO:

- Diabetia
- Asma
- Buruko mina
- Oinen izerdia
- Larri azaleko alergia
- Zizareak
- Prostata, etab...

IKUSMENAREN BERRESKURATZEA

- Miopia
- Bista alfertua
- Estrabismoa
- Begi lausoak-kataratak

GIHARRE ARAZOAK

- Bixkortzea
- Artritia, erreuma
- Artrosia, Lunbalgia
- Bihurdurak, etab...

KONTSULTA ORDUTEGIA

Goizez 9etatik 12etara. Arratsaldez 2-7etara. Ordua eskatu

San Marcial, 7-4 IRUN

MALERREKA

Egunkariaren ixtea salatu du Mankomunitateak



Erabaki honek «euskaldunak ahotsik gabe» utzi dituela uste du

ttipi-ttapa

Malerrekako Mankomunitateak, bere baitan udalerrri hauek hartzen dituena: Beintza-Labaien, Bertizarana (Legasa, NARBATE eta Oieregi), Donamaria, Doneztebe, Elgorriaga, Eratsun, Ezkurra, Ituren, Oitz, Saldias, Sunbilla, Urrotz eta Zubietta, Euskaldunon Egunkariaren ixtea salatu nahi du, Miguel San Miguel lehendakariak sinatutako prentsa-ohar baten bidez.

Mankomunitate honen xedeetako bat euskararen normalizazioa izanik, hasiera batetik bat egin du Egunkariaren proiektuarekin, eta horrela, «*proiektu honen akziodun bihurtu ginen euskararen normalizatorako beharrezkoa den tresna pen-tsatzan dugulako*».

Mankomunitatearen idatziaren arabera, «*Egunkaria da euskarazko egunkari bakarra, bidegabeko erabaki honekin euskaldunok ahotsik gabe utzi eta euskararen normalizatorako ezinbertzekoa dugun tresna isilarazi nahi izan dute*».

Erabaki honen aitzinean Mankomunitatearen desadostasuna azaltzeaz gain, «*atxilotu dituzten pertsoei gure elkertasuna adierazi nahi diegu eta bide-nabar aske utzi ditzaten eskatu*».

DIRUA AURREZTEN ESPEZIALISTAK



Zure osasuna zaintzeko



Zure autoa zaintzeko



Zure hezkuntza zaintzeko



Mendia zaintzeko



Zure dirua zaintzeko

Aurrezkian espezialistak gara

Zure diruarentzako tratamendu profesionala segurtatzen dizun seinalea bilatzen baduzu, zatoz Nafarroako Rural Kutxara. Aurrezkian espezialistak zergatik garen ikusiko duzu.

www.ruralvia.com

Garrantzitsua zu zara



ITUREN

Azpiegitura lanak ez ditu osorik ordainduko Nafarroako Gobernuak

Toki Administrazioak kontrakoa adierazi zuen joan den urte bukaeran

ttipi-ttapa

Joan den urte akabailan, Nafarroako Gobernuko Toki Administrazio Departamendutik jakinarazi zen 1.087.200,85 euroko dirulaguntza emanen zitzaiola Iturengo Udalari, Kastinea, Lopetetxenea eta Kontsejo karriketako eta Aurtiz auzoko ur-garbiaren eta urzikinen sareak berritzeko eta ondotik egin beharreko zolaberritze lanetarako. Departamenduko kontseilariak prentsaurrean eman zuen berria, herri ttiketako herritarrendako gasturik suposatu gabe lan hauek egiteko borondatea erakutsiz.

2004garren urtean egitekoak ziren lan horiek. Baina Iturengo Udala Nafarroako Gobernuarekin harremanean jarri denean, %100eko dirulaguntzarik ez dela izanen jakinarazi zaio. Hain zuzen ere, Hirurteko Planaren barrenean sartuko dira lan hauek eta Iturengo



Artxibokoa

Aurtizko ur sareak berritzekoak ziren 2004. urtean.

Udalak %70 inguruko dirulaguntza jaso ohi du honelakoetan. Horrek erran nahi luke 300.000 eurotik goiti (lehengo 50 milioi pezeta) ordaindu beharko lukeela udalak lana egitekotan. Egoera honen aitzinean zer egin eztabaidatuko duite Iturengo alkate eta zinegotziek martxoaren 6an egingen den udal batzarrean.

Ameztia eta Aurtitz auzoko bideak zolaberritzeko lanak emanen ditu Udalak

Iturengo udalak enkantera atera ditu bi lan: Ameztiako bidea zolaberritzeko lehen faseko obren adjudikazioa alde batetik, eta Ameztia eta Aurtizko bideak zolaberritzeko lanen adjudikazioa bertetik. Le-

henbizikoan, kontratuaurren aurrekontua (BEZ barne) 103.797,18 eurokoa da eta bigarrenean 119.911,94 eurokoa. Santiago Sainz de los Terreros Goñik prestatutako proiektuari eta memoria teknikoari ja-

ZUBIETA

Pinadia erre zuen Mokoro inguruan izandako sute batek

ttipi-ttapa

Ituren eta Zubieta artean dagoen Mokoro inguruan sutea izan zen otsailaren 24ko arratsaldean, kable baten txinpartaren ondorioz. Mugairiko su-hiltzaile parkeko lau ibilgailu eta bizilagun ugari hurbildu zen sua itzaltzeko intentzioarekin, baina haizego zakarrak abudo hedatu zuen sua. Bi ordu beranduago sua kontrolatua zegoen, baina ordurako, Zubietako pinadi handienetako bat kixkalia zegoen.

rraituz egingen diren bi lanetarako proposamenak martxoaren 12ko 14:00ak baino lehen aurkeztu behar dira udal idazkaritzan. Proposamenak hurrengo egunean irekiko dira, 13:00etan, udaletxean.



- 250 lagun eserita
- Klimatizatua

102 Meaka auzoa
20304 IRUN
Tel.: 943 623 130



Tel.: 948 456 080
Faxa: 948 450 334
DONEZTEBE

APARAN, S. A.

BRIKOLAIA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mogleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mogleak eta osagarriak
- KIT mogleak, esku-erremintak, etab...



ezkontza

gehigarria



Banity

NOVIAS 84



Luis Mariano 16-18 • Tel. 943 63 11 44 • 20302 IRUN



Altzate 26 • BERA
948 63 11 21

Gonbidatuekako
opar-itxoak,
emaztegiendako
loresortak, eliza eta
epaitegiko apainketa...



FOTO GOIKO

EZKONTZETAKO ARGAZKI ETA BIDEO ERREPORTAIK

Zilarrezko Triangelua

Espainiako Argazkilaritza eta Irudiaren Profesionalen Federazioak emana

Altzate, 32 • Tel-Fax: 948 630 515 • BERA



Ezkontza prestatu eliaz edo epaitegi otordu ederrarekin

%75 ELIZAZ

Gure inguruan bikote gehienek ezkontzea erabakitzen dute familia sortzeko, ezkontzeko unea dezente gibeleratzen den arren. Eta ezkontza zibilen kopurua goiti doan arren -Espainian, 1996an ezkontzen %23 epaitegian egin zen, 1990eko %19ren parean-, lau ezkontzatatik ia hiru Elizan egiten dira oraindik.

Ezkontzetako protagonista gehienak gazteak izaten dira; hala ere, ezkongaien adina gero eta altuagoa da eta gaur egungo profila ondorengoa izango litzateke: 30 urtetik goitiko gizonezkoa eta ia 28 urtera iristen den emakumea. Banantzeak, berriz, %50 gehitu dira 1990 eta 1997 artean eta dibortzioak %48; 1990ean 36.272 banantze eta 23.191 dibortzio izan baziren, 1997an 54.728 banantze eta 34.147 dibortzio izan ziren.



EZKONTZEA ZENBAT KOSTATZEN DEN

Espainiako Estatuan ezkontzetan urtean 3.310 milioi euro inguru mugitzen dela kalkulatzen da. Aurrekontu izugarriak dituzten ezkontzak eta gastu apalekoak dauden arren, banaz bertze elkartzea ospatzeko egiten den ospakizun sozial honek 15.700 euro inguruko gastua eragiten du, ezkon-bidaia barne. Gastuaren zatirik handiena otordurako izaten da eta banaz bertze 6.000 eurora ailegatzen da. Bertze zati garrantzitsu bat emaztegiaren soinekoak eta ezkon-bidaiak eramaten dute. Lehena 1.200 euro inguru kostatzen da eta bidaia berriz 3.000 eurora ailegatu ohi da. Senargaiaren jantziak, ezkontzako argazki edo bideoak eta bazkalondoko musika eta dantzaldia ere ezin dira ahan-tzi eta bertze 1.800 euro gehitzen dituzte kontura, banaz bertze. Gonbidapen-txartelak, ileapaindegia, lore-sorta, emaztegiaren loreak eta eliza eta otordurako loreak, eraztunak, auto handi bat alokatzea (ezkongaiak hala nahi badute) eta gonbidatuentzako puru eta opariekin, guztira 15.000 eurora aisa ailegatu da kontua.

zea
gian b



EZKONTZEKO TRAMITEAK

Ezkongai izateari uzteko administrazioan egin beharreko tramiteak errazak dira. Ezkontza zibilean, ezkontza eginen den epaitegian espedienteak eskatu behar izaten da eta agiri horri ezkongaien jaiotza-agiria, errolda-egiaztagiria eta nortasun agiriak erantsiko zaizkio. Ezkontza-kontratua asetegunean sinatzen da epaitegian, baina alkate, zinegotzi edo bake epaileek ezkontzeko aukera ere badago. Horretarako, eguna finkatu behar izaten da horiekin eta larunbata izaten ahal da. Elizaz ezkontzeko, aski da ezkontideetako baten parrokiako erretoreari (ez nahitaez ezkontza ospakizuna egiten den elizakoari) ezkontideen bataio-agiriak, familia liburua eta Nortasun Agiriak eramatea. Gehienetan, bikotea ezkonduko duen apezak arduratzen da ezkontza-akta epaitegira bidaltzeaz. Denbora jakin bat pasa ondoren, ezkontza egin den herriko bake epaileak prest izanen du Familia Liburua. Ezkontza bikotearen parrokiari egin bada, debalde izanen da, baina bertze eliza bat aukeratuz gero, 150 euro bitarte ordaindu behar izaten da, zerbitzua, argindarra eta abarregatik.

Argazkiak: Goikok utziak



RUTH ILEPAINDEGI MISTOA

Bittiria 59 - 9
31770 LESAKA (Nafarroa)
Tel. 948 637 436

- Korteak
- Koloreak
- Estentsioak eta trentzak

COSAS DE CASA



Ezkontzetako oparietan azken berrikuntzak

Bataio eta jaunartzeak

Zatoz ezagutzera

Gisa honetako oparietan azkeneko berrikuntzak prezio arras onean

Ordutegia:
10:00-13:00 eta 17:00-20:00
Larunbat arratsaldez itxia

Elizagibela 4 • DONEZTEBE
Tel eta Faxe: 948 45 04 09

J.J. Pikabea

GIZONGAIEN DAKO JANTZIAK




Neurri handiak

Amezia z/g
DONEZTEBE
948 451 670

Perla
Diamanteak

Kalash
Jewelry

Kantaberri 2 • BERA • 948 430731
Merkezariak • DONEZTEBE • 948 451578



EZKONTZA OTORDUA

Ezkontzak eragiten dituen prestakuntzen artean gasturik handiena, zalantzarik gabe, otorduak eragiten du. Familiako eta lagunak gonbidatzeko garrantzi handia du jatetxeak, arrazoi bikoitzagatik. Alde batetik, ezkongaien irudia jokoan dago otorduan eta beraz, garrantzitsua da emaitzarik onenak lortzea.

Gainera, ezkontza eguna jatetxearen arabera aukeratzen da aunitan, inguru honetan ezkontzak udaberrian eta udan egiten baitira batez ere, egun eguzkitsua izateko aukera handiagoa baita. Menua, bazkari edo afariaren egunean txartel batean aurkezten dena, zuzenean kartatik edo horrelako ospakizunetarako diseinatuetatik aukeratu ohi da. Edozein kasutan ere, ez da ahantzi behar plateren kalitate gastronomikoak bikoteei jatetxeak aitzinetik eskaintzen dien dastaketaren parekoa edo antzekoa izan behar duela (bistan da ez dela gauza bera berrehun azpizun edo arraina prestatzea eta lau lagunentzat otordu hori egitea).

Ardoetan desberdintasun handiak izaten dira eta arazoak ere sortzen ahal dira, ardoak zerikusit handia baitu otorduez gonbidatuen buruan geratuko den oroitzapenean. Ezkongaien ardo mota jakin bat aukera dezakete (hobe da gonbidatu gehienek gustuko izango diren ardoak aukeratzea, zenbaiten gustuak aseko ez dituzten edo horientzat arraro gertatuko diren ardo bikainen aldeko aukera egitea baino) eta ardo estandarrekiko aldea ordaintzea, alderik badago.

Otorduren ondorengo dantzaldian barra libre (edariak dohain) eskaintzeko ohitura ere hedatu egin da. Ezkongaien hori egitea aukeratzeko badute, jatetxe edo diskotekarekin ongi zehaztu beharko da zein edari eta zein marka aterako den, gonbidatuekin zenbat zerbitzari izanen diren, barra zenbat denboran irekiko den eta ordainketa nola egingen den: edan dena apuntatu eta egindako kontsumoaren arabera, ala gonbidatu kopuruaren arabera, aitzinetik finkatutako kopurua ordainduko den. Sarritan gertatzen dira barra librean zerbitzu eskasa izan delako arrenkurak. Kexurik ohikoenen artean, edari jakin batzuk (garestienak bereziki) falta direla, gonbidatuei zerbitzen langile gutti izatea, ezkontza-tartatik kafero tarte handiegia izan dela eta ondorioz, dantzaldia eta barra libre gutxitu egin dela. Eta disc-jokeyak edo orkestrak fakturari dantzaldiko musikaren copyright-a edo egile eskubideak gehitzen badizkio, ordaindu egin beharko dira, derrigorrezko baitira.



ARIMAK GAUZA GUTI BEHAR DITU;
GORPUTZAK, AUNITZ. GEORGE HERBERT



ZAPATADENDA

Parrokia, 17 • DONEZTEBE
948 450 289



EZKON GONBIDAPENAK
ARGAZKI MUNTIAK
DESPEDIDATARAKO KAMISETAK
e.d.

948 631 521
Eztegia, 26 behea
BERA

XEHETASUNEN GARRANTZIA

Egun ahaztezin horretako unerik garrantzitsuenak biltzen dituzten argazki eta bideoa oroigarri bakarra eta arras baliotsua dira. Ezkontza eta otorduko irudiak jasotzeko profesionalak kontratatzea erraza da, aunitz aritzen baitira horrelakoetan. Baina aurrez zehaztu behar da argazki kopurua eta bideoaren iraupena eta negatiboen jabea nor izanen den; gehienetan agentziak gordeko ditu, horrela kopien salmenta egin ahal izanen du eta. Argazkilaria edo bideo teknikaria otordura gonbidatu ala ez, ezkontideen esku izanen da, baina ez daude behartuta. Elizarako edo bulego, karpa nahi ezkontza zibila egingo den lekurako loreak aukeratu eta erostea, egun eta leku berean ezkonduko den bikotearekin ados liteke, gastuak erdibana egiteko.



OPARI ZERRENDA

Duela urte batzuk, gonbidatuei oparia non erosi errateko ohitura gustu txarreko inposaketatzat hartzen zen, edo guttienez, ez zen egoki ikusten. Gaur egun ez. Aukera horixe izaten da erosoena ezkongaiantzat eta gonbidatuentzat ere, nahiz eta gure inguruan ez den sobera hedatu oraindik. Gainera, beti dago aukera bertze edozein opari egiteko. Bi modu daude opari zerrenda antolatzeko: lehena, ezkongaiak oparien aukera bat zehaztea eta gonbidatuek horien artetik aukeratu eta ezkongaiak hautaturiko dendan edo dendetan ordaintzea.

Horrek traba bat dauka: opariak jaso egin beharko dira epe jakin baten barrenean eta epe hori pasa ondoren opariak han edukitzea ko-bratu eginen die dendak. Bigarren aukeran, gonbidatuek diru kopuru bat uzten dute ezkongaiak opariak erosteko aukeratu duten dendan eta gero bikoteak nahi dituen opariak erosten gastatzen du bildutako dirua.

Modu honen arazoa da opariak aukeratzeko epea akautu egiten ahal dela (denda batzuetan hiru hilabetekoa izaten da) eta egoera horren aitzinean behar ez diren produktuak erostea gerta liteke, pentsatzeko astirik izan ez dutelako. Horregatik, zerrendaren baldintzak argitzea eta aipatutako egoeretan zer eginen den kontratu batean jasotzea komeniko da. Hitzezko kontratua ere aski izan liteke. Eta, printzipioz bederen, egokiago dirudi oparien zerrendak denda batean baino gehiagotan edo produktu mota bat baino gehiago dituztenetan irekitzea.

Argazkiak: Goikok utziak



Ayda argazkigintza
Fotografos
Tel. 948 42 00 77
Bilbao 2 • 41000 BILBAO

M^{ra} Eugenia Sobrino
BIDAI AGENTZIA

**Ezkontz bidaietarako
aholkuak eta aurrekontuak
prestatuko dizkizuegu**

Munduko leku guzietara

Amaiurko Gaztelua, 2 • ELIZONDO
© 948 452 293

*Une ahaztezinak
gogoratzeko*



Zaldúa
Fotografos

*Ezkontza eta
Jaunartzetan
espezialistak*

*Gazte eta haurren
argazkiak*

Elizondo
948 58 04 91
Doneztebe
948 45 03 64



- Manikua
- Makilaia
- Estetizien

MARIA
ILEAPAINDEGIA

San Migel • Tel. 948 450922 • DONEZTEBE

TRIKIDANTZ trikitixa taldea

Bestak Inauteriak
Ezkontzak Kinto bestak

646 298 568 (Ainara) · 659 379 917 (Leire)



Lesaka Bidaiak

Aldistur 39-n
Lesaka
Tfnoa: 948038153



FOTO MENA

Barrio de San Sebastián, 14 - 48001 LEZAMA
Tel: 945 41 11 11 - Fax: 945 41 11 11

PELUQUERIA ILKAPAINDEGIA

Pinpirin


Aitziber Ubría Santesteban

Plaza Zaherra 26 · 31770 LESAKA · Tfn 948 63 80 17



Ezkon bidaiak aukerak mundua bezain zabala

BIKOTEAREN NAHIA ETA AURREKONTUA



Ezkontza bidaiak aukeratzeko orduan berezia eta ahantzi ezina izatea nahi dugu, gure bizitza guztian egun zoragarri hoiek oroitzeko modukoa, baina munduan zehar leku zoragarri aunitz daude, kultur harrigarriak, paisaia paregabeak.... eta aukeraketa egitea ez da beti erraza izaten.

Kontuan hartu beharreko lehenengo puntua "bikotearen nahia" da, hau da, zer egin nahi dugu? Marokoko zoko jendetsu batean galdu? Karibeko hondartzak bakarti batean palmondopean etzanda egon? Agian Museoz museo eta tenpluz tenplu ibiltzea atsegin dugu edota betidanik jirafa-emakumeak eta beraien tribua ezagutzeko gogoak izan dugu. Honetaz gain, bidaiaren aukeraketan gure aurrekontuak zerikusitatu handia izanen du. Egipto, Tunisia, Thailandiak etabarrek prezio eskuragarrienak eskaintzen dituzten bitartean Australia, Kanada, Estatu Batuak eta Europa dira destino garestienak. Sasoiaren arabera ere prezioak aunitz aldatzen dira kontutan hartzea, garrantzitsua da.



GEHIEN HARTZEN DIREN AUKERAK

Gaur egun jendeak aukera hauek egiten ditu batipat: Egipto, Thailandia, Mexiko, Costa Rica, Mediterraneoan zehar kruzeroa, Tunez....
Ia guztiak ezaugarri hauek betetzen dituzte:

- Erabat antolatua daude.
- Deskantsatzeko aukera eskaintzen dute, hondartzetan, luxuzko hoteletan...
- Herrialdea ezagutzeko bisita gidatuak antolatuta dituzte.
- Lekuan lekuko aktibitateak proposatzen dituzte: gameluan paseotzea, urpekaritza, raftinga,
- Hotel gehienetan arreta berezia eskaintzen diete ezkonberriei.
- Gaztelera bertako hizkuntza da edo ezaguna behintzat.




GURE AHOLKUAK

1. Urrunera joan nahi badugu 12- 15 egun beharko ditugu guttienez.
2. Udan joatekoak bagara, denboraz erreserba egin behar dugu, destinoa, hotelak, hegaldietako datak... aukeratu ahal izateko.
3. Herrialdeari buruzko ahalik eta informazio gehien eskuratzea komeni zaigu: txanpona, eguraldia, bisadua, txertoak, erosketak, bidai aseguroak...

Hala ere gure aukerak ez du eskeintzetara mugatu behar. Norberak bere gustoko bidaiak diseina dezake: Escandinaviako Fiordoak ezagutu, Afrikako sabana globoan zeharkatu, Nepalen trekking-a egin, Vietnameko arroz landetan murgildu, safari batean parte hartu...

Aukerak, mundua bezain zabalak dira!
Zuek erabaki eta... bidaiak gozatu!

LESAKA BIDAIK



INTERVIDEO
Ikusentzunezko
produkzioak



Fca. Javier Varela

**Bideo erreportalak
Profesionala**

Tel. 948 599 055
Mugikorra 609 488 612
Gure Egoltza • 31712 DANTXARINEA
Mendiñueta 7, 2. ezk • 31700 ELIZONDO

- ETB eta TVErendako lanak egiten ditugu*
- *Betacam Digital Formatoan
- Merkatuko preziorik onenak
- Talde profesional batek eginga
- Ezkontzetan esperientzia handia dugu
- Eskaintza berezia DVDa barne

ZUBION- DO

**350, 160 eta 40 lagunendako
hiru jangela**

**Bazkalondoan nahi bertze
luzatzeko aukera**

Kotxe eta autobusendako parking-a

Haurrendako jolasparkea

Koktelarako leku aproposa

BANKETEK ETA KARTA

Eskatu gure ezkontzetako menuak



Azara kaffika
BIPA KAFFIKOA
T.F. 948 625 472
Kafetaria / Barra / Eskarategia

**txartelak
fakturak
kartelak
aldizkariak
logotipoak**

...

Herriko Etxeko Plaza, 1 • BERA
948 63 11 88 • kulturkari@euskalnet.net



KULTURKARI

publizitatea  zerbitzuak



MUEBLES
Telletxea

Rosa Seminario z/g · Tínoa · 948 450 258 DONEZTEBE

GOIZUETA

Herri-plataforma bat osatzeko deialdia egin da

Unibertsitatean ere euskara bultzatzeko lan uztea egin zen Xalto eskolan

Esteban AROTZENA

Goizuetaren eta, orokorrean, Euskal Herriaren egoeraz kezkatu dauden herritarren topaleku izan nahi duen Plataforma bat osatzeko omen da azken egunotan herrian zabaldu den deialdiaren helburua. Larunbat honetarako, hilaren 8rako, da hitzordua. Arratsaldeko 19:00etan Herriko Etxean.

Hego Euskal Herriko leku askotan sortu dira

dagoeneko era honetako talde edo Plataformak. Gauzak bere bitetik baldin badoaz, gurean ere lanean ariko da laister. Horixe da behintzat ekimen hau bultzatu dutenen asmoa.

Unibertsitatean ere euskara bultzatzeko lan uztea

Nafarroako Unibertsitate Publikoan euskarak izan den duen pre-



ARTXIBOKOA

Goizuetako neska-mutilek unibertsitatean ere euskaraz ikasi ahal izateko mobilizazioa egin zen otsailaren 26an.

sentziak berriki parlamentuan PSNk (UPN-ren babesarekin) aurkeztu duen lege proiektuaren kontrako mobilizazioekin bat egin dute herriko eskolako irakasleek. Otsailaren 26an, esate baterako, 12:00etatik 13:00etara lan uztea egin zuten

hainbat sindikatuk lutzatutako deialdiari erantzunez.

Iñoteei buruzko erakusketa asteburu honetan ere

Jasotako erantzun ederraren ondorioz, herriko iñoteei buruz kul-

tur taldeak prestatutako erakusketa asteburu honetan ere, hilaren 8an eta 9an alegia, ikusgai egonen da Herriko Etxeko Ganbaran. Karnabaletako argazkiak, mozorroak eta beste hainbat ikusgarri izanen dira, karnabalen besondorea ahazteko.

ARESO

Elizako atea bortxatu zuten baina ez zuten ezer ebatsi

Merkuko pista Joarbe enpresak egingen du

Juana Mari SAIZAR

Herriko elizaren atearen zerraila bortxatu zuten otsailaren 14an. Badirudi, lapurreta egin asmoz, beste elizetan garai berberean lapurretak izan baitira. Errepasoa eginda gero, itxura batean ez dute ezer ebatsi.

Gazte Olinpiadak

Euskal Herriak bere eskola eta Drogomenpekotasuneko prebentzio programatik Gazte Olinpiadak ospatzen dira Mankomunitateko lau herriekin. Aurtengoan Aresoko herriari egokitu zaio antolaketa. Es-



ARGAZKIA: JUANA MARI

Elizan ebasten saiatu ziren otsailaren 14an.

kola ere inplikatu nahi da ekintza batean, eta guraso arduradun batzuekin, bazkaltzeko eta jokuak egiteko tokia pro-

posatu eta nolabaiteko ardura hartuz.

Merkuko pista

Merkuko pista Joar-

be enpresari adjudikatuko zaio hurrengo udal batzarrean, bera izan baita aurrekontua aurkeztu duen bakarra.

LEITZA

Kubarako dirua biltzeko merkatu txikia antolatu da

Errezumako Juanita Zabaleta mojak bideratuko du martxoaren 16a bitarte bildutakoa

Mikel ILLARREGI

Herriko emakume talde batek udaletxeko karrapean dagoen gelan, baldintza onean dagoen materialaren bilketa antolatu du. Material hau ekartzen duenak doanik eman du eta orain salgai dago erosi nahi duenarentzat. Denetik hartzen dute: arropak, aspaldikoak nahiz berriak diren trasteak... hori bai, txukun eta garbiak.

Errezumako Juanita Zabaleta moja, aspaldidanik dago Kubako komunitate batean. Hauek hiru herri dituzte beraien esku eta batez ere, ezin du, langabetu eta gaixo daudenez arduratzen dira. Honetarako dirua bildu nahi dute eta horren arrazoia da, egun hauean herrian antolatu den merkatu txikia.

Bi astetan bildu dituzte salmentarako gauzak eta martxoaren 3tik 16ra bitarte (luzatzen ez bada) egonen dira sal-

gai. Udalak lokala utzi die eta oraingo jendearen erantzuna egokia izan dela aitortu dute. Egunero 17:00etatik 19:00ak bitarte eta igandetan 12:00etatik 13:30etara zabalik izanen da.

Hemen eginikoa, ongi ateraz gero, «beste tokitarako eredia izan dadila» nahiko lukete.

Emakumearen Eguna

Larunbat honetan, martxoak 8, urtero bezala Emakumearen Eguna ospatzen da. Nahiz eta azterketa egiteko egun bakarra ez izan, noski, «aitzakia» honekin gauza asko da aztertu beharrekoa. Horregatik, eginen diren ekitaldiaz gain, baliogarri izan dadila norberak gai edota egoera honen inguruan daukan jarrera, iritzia... aztertzeko eta eztabaidatzeko.

Martxoaren 8ko eki-

taldia, Ganbara musika izanen da, Kultur Taldeak antolatutik. 20:00etatik aurrera, Ainara Roda abeslaria, pianoa, biolina eta flauta entzuteko aukera izanen da.

Argazki lehiaketa

Aurretik esan genuen bezala, Natura izenburupean argazki lehiaketa antolatu zuen Mendibil mendi taldeak. Aurkeztutako argazki guztiarten bi izan dira puntuaketa berdindu direnak, epaimahaiaren arabera. Bata, Migel Mari Elosegirena eta Juanfra Zabaletarena bestea. Bakoitzak, 150 euro jasoko du.

Une honetan herriarrek emandako balorazioaren arabera garraile gertatu dena norena den ez badakigu ere, iritzia eman dutenen artean egindako zozketaren ondorioz, Arantzazu Lizartza suertatu da



ARGAZKIAK: MIKEL ILLARREGI

Materiala bildu eta gero, Kubako komunitate batera dirua bidaltzeko saldu egiten da.

irabazle.

Unibertsitatean euskaraz

Otsailaren 26an, bi orduko geldialdia egin zen herriko ikastetxetan, Nafarroako Gobernuak Unibertsitateko ezarri nahi duen euskararen presentziaren mugak salatzeke helburuarekin.

Hotz ikaragarria

Epeltasuna iritsi bada ere, zero azpitik zortzi gradu izan ditugu Lei-

FLASH

Saharako haurrak

Udan Saharako haur bat etxean hartu nahi duenak Maimur edo Astiz liburudendetan eman beharko du izena martxoaren 21a baino lehen. Honetaz gain, aurrekoan bezala, Saharar Herriarekin Elkartasuna taldeak antolatutik, Saharara bidaiari antolatu dute apirilaren 16tik 21era. Bidaiaren prezioa 469 eurokoa da eta izen emateko epea martxoaren 24a, aipatutako tokietan.

Prebentzio programa

Guraso elkartearekin batera, lau saioko jarduna antolatu du Junkal Otxotorenak ostegunetan, 15:00etatik 16:30etara. Sikologo eta hezitzaile batek parte hartuko dute.

EGUNKARIA

Euskaldunon Egunkariaren ixtea eta atxiloketak salatzeke mobilizazioak egin dira

Aipatu gabe ezin utzi, euskarak, Euskal Herriak, euskaldunek, euskal prentsak, euskalgintzak... berriro ere, jasan behar izan duen eraso. Arlo desberdinetatik ikus eta azter daiteke, baina ezin uka euskaltzale eta etorkizunean sinisten dugunon-

tzat kolpe ikaragarria izan dela. Itxura denez, jende askori «ikuttu» dio guzti honek eta askok «elkarrekin zerbait egiteko, ez erantzuteko bakarrik, geroari begiratuz elkarrekin jarduteko baidak, garaia badela» esaten du. hala izan dadila, zintzotasunez

bada. Animo eta Egunkaria aurrera!

Mobilizazio ezberdinen artean, kontzentrazio bat deitua izan zen, egun horietan Euskal Herrian gertatutako atxiloketak salatzeke asmoz. Hala ere, elkarretaratze hau erdipurdika gauzatu zuten bildutakoek, guardia zibilen neurririk gabeko presentziagatik.

BERTIZ

Irudi berria Bertizko Natur Parkearendako

Joan den urtean 63.490 bisitari izan zituen

ttipi-ttapa

Bertizko Jaurreriko Natur Parkeak irudi korporatibo berria aurkeztu du. Logotipo honek natur eta paisai aldetik interes handiko eremu natural bakartzat identifikatzen du. Izan ere, 1984an parke izendatu zutenetik, Nafarroako eremu natural bisitatuena da Bertiz. Joan den urtean, erraterako, 63.490 lagun bisita jaso zuen.

«Kalitateko Q» ziurtagiria lortu nahi du aurtengo parkeak eta kalitate handiko zerbitzuak eta instalazioak eskaintzen dituela adierazi nahi da parkea identifikatzen duen irudi berriarekin. Irudian, berez Ipar Amerikakoa den eta Bertizen ale ederrak dituen *Liquidambar Styracflua*

izeneko zuhaitzaren hostoa ageri da, udazkeneko koloreekin.

63.490 BISITARIEN ARTEAN MARIO VARGAS LLOSA IDAZLEA

Arestian aipatu bezala, Bertizko Natur Parkea izan zen joan den urtean Nafarroan bisita gehien jaso zituen natur eremua, 63.490 lagun hain zuzen. Kopuru horretatik %34,10, hirutik bat, nafarrak ziren. %2,90 eskualdeko bisitariak ziren eta gainetarako %63a bertze herrialdeetatik etorritakoak.

Normala denez, abuztua izan zen bisitari gehien eman zituen hilabetea (10.222 lagun). Ekainean (8.532), martxoan (7.540), uztailean (7.458) eta maiatzean (7.457) ere bisitari kopuru polia hurbildu zen. Kopuru hauek mantendu egin ziren urrian (5.171 bisitari), apirilean (4.748), irailean (4.735) eta azaroan (3.710) eta zerbait beheti egin zuten abenduan (1.475), otsailean (1.283) eta ilbeltzean (1.159).

Guzi horien artean bisitari ezagunak ere izan ziren. Erraterako, Mario Vargas Llosa idazlea izan zen Nafarroako Unibertsitate Publiko ordezkariekin batera. Madrileko Jardin Botanikoaren Lagunak elkartearen ordezkariek eta Kantabriako Gobernu Ingurumen zuzendariaren eta teknikoen ere hurbildu ziren Bertizko naturaren interpretazio zentrua ezatzen.

2001. urtean parkeko jauregian bilerak eta kongresuak eginen ari zirenetik, indartzen joan da aktibidade hau ere. Nafarroako Go-



Logotipo berriak, berez Ipar Amerikakoa izanik, Bertizen ale ederrak dituen zuhaitz espezie baten hostoa irudikatzen du.

bernuko Departamentu ezberdinen bileraz gain, Eide Consultores, Aceralia, Erreka, Nestle eta bertze enpresak ere egin ziren iaz.

gutzera. 2001. urtean parkeko jauregian bilerak eta kongresuak eginen ari zirenetik, indartzen joan da aktibidade hau ere. Nafarroako Go-

KAPRITXO
Arropa eta opari denda
© 649 450249 • LEITZA

MENDI OSTATUA
Santiago 25 - © 948 580313
ELIZONDO

JATETXEA
© 948 580101
Santiago 1
ELIZONDO
Galarza

TIBURCIO GOIENETXE ETXEBERE

ANZABAL
AGENZIA

- **Zurich Aseguruak**
 - Autoa, etxebizitza, istripu eta bizitza aseguruak
- **Lan aholkularitza**
 - Nomina eta Aseguru Sozialak
- **Aholkularitza fiskala**
 - Errenta Deklarazioak, IVA...
- **Inmobiliaria**
 - Baserri, borda, pisu, etabarren salmenta eta alokairua
- **Gestoria**
 - Ibilgailuen transferentziak, gidatzeko karnetaren berritzea eta edozein gisako gestioak

Santiago 15 - Tinoa eta Faxe: 948 580804 - ELIZONDO

BAZTAN
ALTZARIAK zurgindegia

- Sukalde, logela, jangela eta egongelarako mobleak
- Estiloko mobleak: Luis XV, Regence, L. Felipe, Napoleon.
- Haritz, gaztain eta gerezi egurretan egindakoak

121 errepide nazionala, 54. km • Tfnoa: 45 23 74 - IRURITA

BAZTAN

Askapeko tunelaren bi aldeak elkartu zituzten otsailaren 20an

Ornoz-Mugairiko saihebiderearen lanak hiru hilabete gibeleratuko dira

ttipi-ttapa

Otsailaren 20an elkartu ziren Oronoz-Mugairiko saihebiderean Askapeko tunelaren bi ahoak. Ekitaldian lekuko izan ziren Jose Ignacio Palacios, Nafarroako Gobernuako Herrilan kontseilaria, Patxi Oiartzabal Baztango alkatea eta Florentino Goñi, Oronoz-Mugairiko alkatea. Tunelak 427 metroko luzera du eta Azkazorro izenarekin bataiatu dute. Dena den, berri guziak ez ziren onak izan. Kontseilariak onartu zuenez, saihebiderea uste baino hiruzpalau hilabete beranduago idekiko da. Lanak Necso enpresaren esku daude, 6,3 milioi euroren truke. Hasiera batean urte honetako maiatzean akitzea aurreratu zen, baina kontseilariaren aurreikuspenen arabera, uda pasatu arte gibeleratuko da lana. Tunelaz gain, 135 metroko zubia ere egiten da erreka gainean.



Bitxikeri gisara, erran behar da Maria Irurueta elgorriagarrak ireki zuela Azkazorro tunelaren azken zatia. Orbaizetako Aezkoa eskabazio enpresan ari da eta berari suertatu zitzaion azken zati hori irekitzea. «*Ilunpetan hainbertze egun aritu ondotik polita izan da argia ikustea*» zioen. Nafarroan ez du bertze emakumerik ezagutzen lanbide honetan.



Argazkiak: D.Navarra
Maria Irurueta elgorriagarrak eskabadorarekin ireki zuen tunelaren azken zatia.



PERTSONAIA

Paquita ERASO

84 urteko organujoleari omenaldia egin zioten Zigan

Zigako bizilagunek eta kanpoan bizi diren bertze aunitzek omenaldia eskaini zioten Paquita Eraso Olaetxeari. 84 urteko emakume honek hamabortz daramazki San Lorenzo elizako meza eta elizkizunetan organua jotzen. Patxi Izko apezak eta Francisco Javier Etxenike alkateak, herritarren laguntzarekin antolatuta zuten omenaldia. Bi dantzarik aureskua eskaini zioten eta parrokiak nahiz herriak lore-sorta eta oroigarriak eskaini zioten.

Paquita Erasok Elizondoko abesbatzako kide izan zen gaztetan, bere bi anaiekin batera, berriki hildako Juan zuzendariarekin eta Pablorekin hain xuxen. Pianojole eta organujole bikaina da eta bere borondatez jotzen du organua Zigan, bertako abesbatzari lagunduz.

LARRALDEA SAGARDOTEGIA

Bertan egindako sagardoa eta sagardotegiko menua

Telleria Auzoa • LEKAROZ

© 948 452121

ANTXITONEA
 Trinketea

Jatetxea - Ostatua
 Hotela - Trinketea

Menu Bereziak

Braulio Iriarte
 ELIZONDO

© 948 581807 • 948 581853

onegin
 Herbodietetika Ekodenda

- ZERBITZUAK:
- DIETISTA
- NATURISTA
- PRODUKTU EKOLOGIKO
- PRODUKTU NATURALAK
- PRODUKTU ARTISAUAK

Jaiatek Urrutia, 36, Ibañeta • ELIZONDO
 748 361 972

DAGUIRRE
 arkitektura

OBRA PROIEKTUAK

Etxe berriak eraikitzeko
 Birmoldaketak
 Aktibitateak
 Hirigintza

649 95 94 14
 NAFARRONAN ETA GIPUZKOAN

BAZTAN

Baztandarren Biltzarrako kartel lehiaketara lanak martxoaren 14a arte aurkezten ahal dira

Aurtengoan berrogei urte beteko ditu ospakizunak

ttipi-ttapa

Baztandarren Biltzarra elkarteak, Baztandarren Biltzarra eguna iragarriko duen kartel lehiaketa antolatu du bertze urte batez. Aurtengoan berrogei urte beteko ditu ospakizun honek eta kartelan ere bildu beharko da data hori. Zehazki, 50x70 centimetro izanen dituen kartel horretan, «Baztandarren Biltzarra 03. 40 urte. Elizondon Uztaillaren 20an. Eskuarak bazten gaitu» jarri beharko du.

Lanak aurkezteko epea martxoaren 14aren eguerdiko 12etan akituko da, honako helbide honetan. Baztandarren Biltzarra Elkarte, 22 P.K., 31700 ELIZONDO (Nafarroa).

450 EUROKO SARIA

Epaimahaia bi diseinugile grafikok, Baztango bi artistak eta Baztandarren Biltzarra elkarteak bi kidek osatuko dute. Epaimahaia saria martxoaren 15etik



Berrogei urte beteko ditu aurtengo Baztandarren Biltzarrak. Ospakizun hori ere bildu egin beharko da kartelean. Argazkia duela 35 bat urteko Baztandarren Biltzarrako irudia.

aintzinet ezagutzera emanen du, irabazleari zuzenean eta gainerakoei ohiko komunikabideen bidez. Epaimahaia kartel bakarra hautatuko du eta irabazleak 450 euro jasoko ditu. Sarituak ez diren kartelak uztaillaren 21etik aintzinet berreskuratzen ahal dira, horretarako

elkartarekin harremanetan jarritz. Kartel sarituaren egileak, berriz, Baztandarren Biltzarra elkartearen esku utziko ditu kartelaren erreproduktzio eskubideak.

Partehartzaileak Offset sistemak onartzen dituen teknika eta kolore guztiak erabil ditzake. Informatika euskarrian

egindako kartelak, disketek lagunduta joan daitezke, irabazleak suertatzekotan hobe inprimatu ahal izateko. Kartel bakoitzaren gibelean lema bat jarri beharko da eta gisa honetako lehiaketetan ohiko den sistema erabiliz igorri beharko dira lanak.

Korrika apirilaren 13an ailegatuko da Baztanera

Aurtengo Korrika apirilaren 13an sartuko da Baztanen, Iruritatik. Apirilaren 4ean abiatuko da euskaren aldeko lasterketa Mauletik eta Baztanen, Zubiritik sartuko da. Goizeko 1:06etan ailegatuko da Iruritarra, hoguei minutu beranduago Elizondora ganen da. Balleko bertze herri batzuen barrena igaro ondotik, 11:41etan ailegatuko da Iruñera.

ARGAZKI ERAKUSKETA

Baztandarren Biltzarrarekin lotutako kontuekin akitzeko, Iñaki Bergara argazkilari donostiarra besta honen inguruan egindako 30 argazki ikusgai daude Elizondoko Arizkunenea Kultur Etxean, astelehenetik larunbatera, 18:30etatik 20:30etara.

asnap me
servicio completo de la gestión y gestión empresa

- GIZARTE ETA LAN ARLOA
- KONTABLE-FISKALA
- JURIDIKO-MERKANTILA

<ul style="list-style-type: none"> • LANGILE AUTONOMOAK - Garraiok - Elektrizitatea - Eraikuntza - Igelseroak... • NEKAZARIAK ETA MENDI LANGILEAK • ENPRESA GUZIAK 	<ul style="list-style-type: none"> - Nominak eta Aseguro Sozialak - Kontabilitateak - IVA eta IRPF - Garraioan asessoramendua - Diru-laguntza ezberdinak - Sozietateen inpostuak - Errenta aldarpenak
---	--

DONOSTIA
Rasa Sarriena, 4. beheko
Tele: 948 451922 Fax: 948 451410
www.asnapme.com

ELIZONDO
Santago, 51. beheko
Tele: 948 580 500
elzando@asnappme.com

IRUÑA
Sarriena, 3. beheko
Tele: 948 362200 Fax: 948 362944
janzu@asnappme.com

BAZTAN FUNERARIA

Mateo Lertxundi

TANATORIO ZERBITZUAK

HILKUTXEN ERAKUSKETA ETA SALMENTA

EHORZKETA ZERBITZUAK • TRASLADOAK

Pedro Axular, 6 • ELIZONDO

• ☎ 948 580373 • 608 776176

SENPERE

Ihauteriak biziki koloretsuak eta jendetsuak izan dira

Auto-mozorrotuek eta mozorro lehiaketak arrakasta izan zuten

Franck DOLOSOR

Nahiz eta hotz handia egin zuen, Ihauteriak biziki ederrak izan ziren gan den otsailaren 15ean. Jende ainitz hurbildu zen eta aurten lehen aldikotz auto-mozorrotuak prestatu zituzten elkarte batzuek. Lan handia hartu zuten denek baina ideia zinez polita da eta ondoko urteetan gehiago

izatea espero dute antolatzaileek.

Senpere Eguna eta Bihar elkartearen biltzarra igandean

Senpere Eguna eta Bihar elkarteak bere biltzar nagusia ospatuko du martxoaren 9an goizeko 10:30etan Elkar-tetxean. Urteko bilanaz



gain, aurtengo proiektuak aipatuko dira bilkura hortan.

Gazte Leiho kontzertua kirol zelaian

Gazte-Leiho musika maketa lehiaketaren kontzertua kirol-zelaian

ospatuko da aurten ere Hitzordua martxoaren 29an izanen da eta aurten saristatu diren musikariak entzuteko parada izanen da.

Korrika apirilaren 5ean

AEKren aldeko ha-

mahirugarren Korrika herritik pastuko da apirilaren 5ean larunbatarekin arratsaldeko 14etarik goiti Uztaritze eta Azkaine lotzeko gisan. Aurtengo Korrika apirilaren 4an aterako da Mauletik eta 13an helduko da Iruñarat.



ARGAZKIA: STUDIO DE LA NIVELLE

Lehenagoko 90 gazte bildu ziren Arozeta jatetxean otsailaren 3an.



ARGAZKIA: STUDIO DE LA NIVELLE

Udazkenean irekiko den udal haurtzaindegia lehen harria pausatu zuen andere auzapezak otsail hastapenean.

Landibar ZENTRO KOMERTZIALA
URDAZUBIN

300 m² perfume markarik ezagunenskin
Usain-onak, kosmetikoak...
Euskal Herriko preziorik hoberenak

© (0034) 948 599 400 • **EGUNERO IREKIA**

ZUBIRIA
MINDEGIAK

- Etxeak apaintzeko landareak
- Baso landareak
- Bertako frutondoak

ARRAIOZ • NARBARTE
Tfnoak: 948 452032 (bulegoan) • 948 592034 (etxean)
Faxa: 948 581274

AZKAIN

Ihauterietan gazteak etxez etxe ibili ziren hartzarekin batera

Arratsaldeko egitaraua euriarengatik laburtua izan zen

Ihintza, Angela eta Eneko

Otsailaren 22an ospatu ziren Ihauteriak. Goizeko 9etan bildu ziren lehen gazteak zirtzilez jantzirik *xingar ta arroltze* eskatzeko etxez etxe. Thierry Truffau etnologoa ere hurbildu zitzaizen argazki tresna eta bideo kamararekin ikerketa lan baten egiteko. Hartza karriketan ibili zuten beraiekin eta ihauterietan bezala zernahi gauza egiten ausartu ziren goiz guziaz. Dantzan karrika erdian, kantuz, autoak gelditzen bide erdian, etxeetan sartzeko oihuka, edo ardi gibelatik lasterka, beren jokoa bururaino eraman zuten zirtzilek. Saskia ongi beteta bazkaltzeko bildu ziren bil tokin animaleko arroltzeomeleta baten inguruan.

Arratsaldeko egitarauak ez zuen aldiz arrakasta bera izan. Ibilaldia egin bazen ere, aro txarrarengatik besta Bil

Tokin egitea nahiago izan zuten antolatzaileek. Han berean egin zen Pantzarren Auzia. Aurtengo jokolari gazteek Pantzar, Pette, auzapeza eta Jaun Jujearenen arteko epaiketa antzeztu zuten. Ustez eta Pantzar eta Pette Himalayara joan zirela munduko gailur haundienaren gainditzera herriko diruarekin, Auzapeza eta herritarrek ohartu ziren dirua Ibizara joateko baliatu zutela eta bideo erreportaia faltsu bat muntatuz herritarrek engainatu zituztela. Hala ere Pantzar ez zuten erre sobera haize zelakotz plazan.

Mus xapelketa

Union Basque xapelketako lehen partiduak egin ziren Plazan Ostatuan otsailaren 21ean. Jokolari ainitz bildu zen arrats hartan eta adin guzietako jendea ikusten ahal zen ari-



30 bat gazte agertu ziren orotarat karriketan.

ARGAZKIA: ANGELA JORAJURIA



tzen. Ondoko partidak bertze egun baterako finkatuak izan dira orotarat talde bakotzak zapi egin behar baitzituen.

Egunkariaren aldeko elkarretaratzea

Euskal Herriko bertze toki ainitzetan bezala, Azkainen ere egin zen Egunkariaren aldeko sustengu elkarreta-

ratzea. Otsailaren 26an egin zen herrian plaza kiosoaren ondoan, «Egunkaria Aurrera, Euskara Aurrera» banderola batekin.

Errugbia

Kanboren kontrako matxa galdu zuten errugbilariek 10 eta 6. Aurten hirugarren aldia da talde horren kontra galtzaile gibelat etortzen

direla. Kalifikatzeko xantza guziak atxikitzen dituzte hala ere Mendikotaren kontra irabazten badute heldu den igandean.

Selauru hustea

Hilabetearen behin egiten den selauru hustea martxoaren 8an egingen da Pilota Plazan egun guzian.

Erakusketa

Liburutegiak otsoari buruzko erakusketa eta animazioak antolatuko ditu eskoletako haurrentzat martxoaren 3tik 23rat.

Saski Baloia

Gaztetxoak Martxoaren 8 arituko dira eta helduak martxoaren 16an.



ZALDUBI

Martin Lizasoain Adansa

- SUKALDE MOBLEAK
- BAINU MOBLEAK
- MANPARAK

Zaldubi Poligonoa • © 948 580 562 IRURITA



SALMENTA
MARKA GUZIEN KONPONKETA

Tel.: 948 62 55 55 • Faxa: 948 62 55 05

Banarta, 2 • Alkaiaga ind. • 31789 LESAKA
(Sarrera Beratik)

SARA



Argazkia: Xan

Olhain ikastolako piratak. Kontu eman gero!

Hiru eskolako haurrek elgarrekin ospatu zuten ihauteria

François Pouyet da lezeetako zuzendari berria

Xan HARRIAGUE

Joan den otsailaren 11n Sarako plazan elkartu ziren hiru eskolako haurrak ihauteri kari. Trikitilariak alaiturik, herrian ibili ziren kantu eta irrirtzika kiroltegi-raino. Eskola publikoko haundienek San Pan-

tzar epaitu zuten, bereziki Prestigen hondamendialeporatuz. Ihauteri horietan mozorro frango ikusi ahal izan genituen, hala nola eskola publikoko urpekarriak, ikastolako piratak-buraso batek egin bar-ku ederrean edo San Jo-

sep eskolako kirolariak. Arratsalde koloretsua zinez, euri ttanttek histen lortu ez zutena.

Lezeetako zuzendari berria

Lezeetako zuzendari berria hasi da lanean, bi haur dituen, 32 urte-

ko, François Pouyet jatorrizko Saratar hunek, ikasketak Bordelen egin ditu baxua + 5 urte arte. Duela sei urte atzerrira joan zen, Frantziara, lanarengatik. Nahiz eta komertzio talde haundi batean postu on bat ukan nahiago izan

du bere familiarekin herrira itzuli.

Errugbian etxeko partidak irabazi beharrean

Lehen matxa kanpoan galdu bazuten, bigarrena ere kanpoan zuten, Mendikotarren kontra, baina aldi huntan matxa zaila baten ondoren hiru puntuak eskuratu zituzten irabaziz 3 eta 10. Badirudi, kanbon irabaztea zaila izanen dela, hala ere etxean dituzten 3 matxak irabazten badituzte, pentsatzen ahal dugu Sarako basurdeak kalifikatuko direla final erdiatarako.

Herriko etxeko edantegiko mus txapelketako zikiro jatea

Urtero bezala, Herriko etxeko edantegiko mus txapelketaren finalak igandean jokatu dira, aurten martxoaren 15ean. Irabazleentzat 500 euroko saria izanen da eta final tikiaren irabazleentzat bildotx bat. Txapelketa erabaki eta zikiro jatea izanen da Jose Angel musikalaria animaturik. Izenak aitzinetik eman behar dira martxoaren 7a baino lehen.

Carlos Garaikoetxea Etxenike
abokatua
Aseguru orokorrak
© 948581468 • 948580433
Frantziarako etorb. 12 •
Ameztialde 3B • ELBETE

Okindegia Jatetxea

Uxoa

OKINDEGIAN
- Ogi artissua, egunekoa eta txapeta
JAIETXEAN
- Menua eta karta (asteburuetan)
- Espezialitate parrilax erretako jakietan

Enkargatuz gero, bidaltza egiten dugu, etxe-ko gero-gero!


Oribi industrialdea - Tfnoa: 948 45 34 01 - 31113 ARIZKUN

HERRIKO ETXEO EDANTEGIA

MAIXAN ETA VÉRONIQUE
SARA • TEL. 0559542519

MENDIALDE Jatetxea

AMAIUR • © 948453060



EZKONTZAK

Juan Ignacio Alvarez Agirre eta Maria Isabel Iraizoz Osinaga, Iruñakoak Almandozen, otsailaren 8an.



SORTZEAK

- Iruñe Elizalde Abad**, Illarregikoa (Ultzama), urtarrilaren 25ean.
- Imanol Del Campo Pellicer**, Elizondokoa, otsailaren 8an.
- Unai Aginaga Etxamendi**, Elizondokoa, otsailaren 13an.
- Unax Uitz Sanchez**, Goizuetakoa, otsailaren 6an.
- Julia Artieda Vila**, Berakoa, urtarrilaren 29an.
- Omar Ugartemendia Sagastibeltza**, Leitzakoa, otsailaren 9an.
- Nerea Aranberri Zubiri**, Leitzakoa, otsailaren 12an.
- Joanes Agirre Maestre**, Leitzakoa, otsailaren 7an.
- Madai Garcia Rey**, Berakoa, otsailaren 19an.
- Xanti Montet**, Azkaingoa, otsailaren 11n.
- Xabier Apezetxea Iribarren**, Doneztebekoa, otsailaren 21ean.
- Francisco Javier Jimenez Jimenez**, Oierregikoa, otsailaren 6an.
- Marene Etxenike Guerra**, Igantzikoa, otsailaren 4an.



HERIOTZAK

- Justo Torres Mendiburu**, Elizondokoa, otsailaren 18an, 77 urte.
- Rosario Arrondo Segura**, Berakoa, otsailaren 19an, 81 urte.
- Aurora Quintana Etxeberria**, Nartartekoa, otsailaren 14ean, 89 urte.
- Jose Ignacio Zelaia Goikoetxea**, Lesakan, otsailaren 16an, 89 urte.
- Pedro Isasi Legarreta**, Lesakakoa, otsailaren 17an, 80 urte.
- Conchita Bengoetxea Telletxea**, Berakoa, otsailaren 24ean, 82 urte.
- Jose Manuel Alonso Ruiz**, Azkaingoa, otsailaren 11n.
- Joséphine Olaizola Larretxe**, Azkaingoa, otsailaren 19an.
- Marie Jeanne Goia Mihura**, Azkaingoa, otsailaren 25ean.



Eskela eta eskertzak
948 631188

Eskela jartzeko (nahi izanez gero argazkiarekin) 65 € ordaindu behar da **Rural Kutxako** 3008 0080 53 0703304626 kontuan sartu eta justifikantea **ttipi-tt**para igorri faxez edo postaz, argazkiarekin eta sartu nahi den testuarekin batera.




M^a Dolores BARNO ITURBURUA
"ieies"

Elizondon hil zen 2003ko otsailaren 25ean, 87 urte zituela

Beti irrifarrea zenuen lagunmin gauza denen gainetik aitzinerat ekin bizitzari helduaz gogo guziekin indar hau utzi duzu betiko gurekin maite izan zaitugun familiarekin.

Zure familia



GRUPO TANATOR C T A DEA
IRACHE
G.L.S. UNES ÚÑEKES DEL NORTE, S.L.

TANATORIO BAZTANDARRA
Santiago 52 • ELIZONDO

Baztan, Bertizarana, Urdazubi eta Zugarramurdin

24 orduko zerbitzua tanatorioan eta etxean prezio guzietan

☎ 948 581959
☎ 900 704704

PILOTA

Oizko Mendiola anaiek eta Fagoagak irabazi zuten Baztan-Bidasoako paxaka txapelketa

9-4 gailendu zitzairen Iruritako Urrutia anaiei eta Elizaintzineri

Aitor AROTZENA

Iñaki eta Lander Mendiola anaiek eta Sergio Fagoagak osatutako Oitzko hirukoteak irabazi du Laxoa elkartek laugarren aldiz antolatutako Baztan-Bidasoako paxaka txapelketa. Otsailaren 22an jokatu zen finala Iruritako Aranabia pilotalekuan eta oiztarrek 9-4 irabazi zieten Iruritako Igor eta Oskar Urrutia anaiei eta Jose Ignacio Elizaintzin-i. Azken honek, min hartutako Andres bere anaia ordezkatu zuen.

Finaleko lehendabiziko zatia berdindua joan zen, kintze luzeekin eta bi hirukoteek partida ikusgarria eskainiz. 5-4 aitzinetik paratu ziren oiztarrek eta hortik aitzinera joku guziak irabazi zituzten. Gan den urtean azpitxapeldun izan ziren Oizkoak eta Iruritakoak txapeldun duela bi urte. Orain arteko lau txapelketetan, beraz, ez da txapeldunik errepikatu.

Aitzinetik, hirugarren eta laugarren posturako lehian aritu ziren Iruritako bertze bi hirukote. Guillermo Etxenike, Iñigo Unanua eta Joseba Urtasunek 9 eta 5 irabazi zieten gan den urteko txapeldunei, Iñaki Zabaleta, Xabier Ripa eta Miguel Angel Iñareari (azken honek Santxotena ordezkatu zuen).

Bi partidu hauen ai-



ARGAZKIA: D.NOTICIAS / GARA
Goitian, paxaka txapelketako finalean eta hirugarren posturako lehian parte hartu zuten hirukoteak, Laxoa elkarteko ordezkariekin. Beheitian, Mendiola anaiek eta Fagoaga kontent, finala irabazi ondotik.

zinetik, Gipuzkoako Joko Garbi txapelketako errebantxa partida jokatu zuten Villabona eta

Zubietako pilotariak. Partida guzieren ondotik txapelak eta sariak banatu zituen laxoa

Elkartek eta Elizondoko Antxitonea trinketean afulduz akitu zen txapelketa.

FLASH

Patxi Vila

Txirriindulari beratarrak ongi hasi du Italiako *abentura* Lampre taldean. Giro della Liguria lasterketan hamargarren izan zen sailkapen orokorrean, irabazle izan zen Saeco taldeko Danilo di Lucatik 50 segundura. Taldeak jakinarazi dio dagoeneko Italiako Giroan parte hartuko duela, Juanma Garate laguntzeko. Aitzinetik, Setmana Catalana, Indurain Sari Nagusia, Euskal Herriko Itzulia, Amstel Gold Race, Flecha Valona, Liege-Bastogne-Liege eta Normandiako Giroan parte hartuko du, martxoan eta apirilean.

Nafarroako paleta-goma txapelketa

Otsailaren 23an jokatu ziren Labriten Nafarroako paleta goma txapelketako finalak. Lesako txapelketatik ateratako bikoteek maila handia erakutsi dute bi kategoriatan. Bigarren mailan finalean izan ziren bi bikoteak Lesako txapelketako ordezkariek ziren. Aitor Oiarzabal lesakarrak eta Bittor Txoperena igantziarrak 35 eta 28 irabazi zieten Otegi anaiei, Lehendabiziko mailan Xebe Txoperena eta Antxordoki igantziarrak azpitxapeldun izan ziren.

HERRI KIROLA

URREZKO AIZKOLARIAK

Donato Larretxeak eta Miel Mindegiak irabazi zuten Urrezko Aizkora

A. A.

Miel Mindegiak eta Donato Larretxeak azken kolpearekin irabazi zuten Binakako Urrezko Aizkoraren finala otsailaren 16an Azpeitian; izan ere, ordura arte gibeletik joan ziren, txanda libreko saio guztian Peñagarikano eta Arrospide izan baitziren nagusi. Biko guztiek garbi zeukaten edonork irabaz zezakeela eta txanda librean erabakiko zuela, eta horixe gertatu zen. Bukaera paregabea izan zuen finalak, kolpe baten barranean sartu baitziren lehen bi bikoteak, eta hirugarrena 20 segundora sailkatu zen.

Lanei ekiteko txanda libreko saioa izan zen, eta bikote bakoitzak 80 ontzako bana moztu behar zuen. Irabazleak bi puntu eramane zituen, bigarrenak bat eta hirugarrenak bat ere ez.

Mindegia-Larretxeak ez zuten aparteko arazorik eduki lehen bi puntuak eskuratzeko, hasieratik bukaerara nagusi izan baitziren. 2.58 izan zen euren denbora. Minutu erdira sailkatu ziren Arrospide-Peñagarikano, puntu bat eskuratuz, eta gibelegarago gelditu ziren Olasagasti-Nazabal.

Ondoren kanaerdikoen txanda etorri zen; irabazlearentzat bi puntu zeuden jokoan, eta galtzailearentzat bat ere ez. Arrospidek arazorik gabe irabazi zion Olasagastiri. Larretxea eta Peñagarikanoren arte-



ARGAZKIA: D. VASCO

Miel Mindegia eta Donato Larretxea kontent, Patxi Larretxearen zorionak jasotzen, binakako Urrezko Aizkoran garaipena lortu ondotik.

ko lehia ederra izan zen, eta azkenean arantzarrak eraman zuen garaipena. Mindegiak Olasagasti mendean hartu zuen, eta Nazabalek Peñagarikano. Arrospidek Mindegiari irabazi egin zion, eta, azkenik, Nazabal Larretxeari gailendu zitzaion. Saio honetan bikote bakoitzak launa puntu eskuratu zituen.

60 ontzakoen txanda iritsi zenean, aizkolariak indarrak gorde nahi zituzten, denek baitzekiten non erabakiko zen finala. Bi txandatan banatuta aritu behar zuten aizkolariak; saioa irabazle bakoitzak bi puntu lortuko zituen, eta bat bigarrenak. Lehen txandan Olasagasti izan zen nagusi, Mindegia eta Arrospideren aitzinetik. Hirugarrenean, Nazabalek irabazi zuen, Larretxea eta Peñagarikanoren aitzinetik.

Azken saioa txanda librekoa zen, eta garbi zegoen horko irabazleak eramanen zuela txapela. Irabazlearentzat 12 puntu zeuden, bigarrenarentzat sei eta azkenekoarentzat bakarra. Bikote bakoitzak bi kanaerdiko, lau 60 ontzako eta bi oinbiko moztu behar zituen.

Hasieratik hartu zuten abantaila Arrospidek eta Peñagarikanok, eta pixkanaka aldea gehitzen hasi ziren. Bigarren postuan parea zebiltzan Larretxea-Mindegia eta Nazabal-Olasagasti.

Lan erdietan Arrospide eta Peñagarikano ziren nagusi, 7:42ko deborarekin. Bigarren, Olasagasti eta Nazabal (8:06), eta hauengandik bi segundora ziren Larretxea eta Mindegia.

Bigarren itzulian ere bazirudien Arrospide eta Peñagarikanorentzat

izanen zela txapela. Larretxea-Mindegia, berriz, gibelean utzi zituzten Olasagasti eta Nazabal. Azkenaurreko kanaerdikoan aunitz hurbildu ziren arerioengana, baina azken enborreko lehen zatian ere Peñagarikano eta Arrospidek oraindik aldea zuten. Beizamakoak, ordea, besoetan arazoak zituela eta, azken kolpeetan txanda aldatu behar izan zion Arrospideri, eta hortxe ihes egin zien txapelak. Larretxeak eta Mindegiak, berriz, ia ez zuten aldatarik egin, Arantzako moztu baitzuen gehiena.

Akabailan bi segundoko aldea egon zen, kolpe batena, Larretxeak eta Mindegiak euren moztu zutenean Peñagarikano-Aarrospide gelditu egin baitziren. 16:29, 16:31 eta 16:49 izan ziren denborak.

FLASH

Jone Fagoaga lesakarrak Skeet Olinpikoan Erregearen Kopa irabazi zuen otsailaren 15ean Madrilan. Denboraldi honetako lehendabiziko tiraldiak zituena Jonen eta itxura ezin hobea eman zuen. Lehendabiziko bi serietan, 50 plateretik bakarrean huts egin zuen eta Espainiako errekorra gainditzeko bidean zen. Bigarren sailkatuari zazpi platereko aldea ateratzen zion, baina azkeneko seriearen hasieran sorbalda ateratu zitzaion. Benda jarri zioten, baina mugimendu batzuetan ezin zuen Jonen sorbaldan paratu eskopeta. Entrenatzaileak saioa uzteko erran zion, baina Fagoagak zuen abantaila ikusita, errekorra egiteko ez, baina Kopa irabazteko modua zuela ikusi zuen eta halaxe egin, gainera. Azkenean, lau platereko abantaila ateratu zion bigarrenari. Orain, apirila arte atsedena izanen du, beraz, sorbalda sendatzeko ere ongi etorriko zaio Joneri.

VI. Berako Mendi Itzulia

Maiatzaren 18an egingen da Berako Agerra Mendi taldeak, udalaren laguntzaz seigarren aldiz antolatutako Berako Itzulia. Agerratik abiatuta, 30 kilometroko ibilbidea proposatu dute aurten: Larretagaina (Santa Barbara), Idoia, Labiaga, Lizuniaga, Kondendiaga, Larun, Yasola Zaharra, Landagaita, Usategieta, Ibardin, Azkenbenta, Mandela, Posta eta Agerra. Izen ematea egun berean eginen ahal da, 6:00etatik 7:50etara (6 euro). Irteera 7etatik 8etara egingen da.

AGENDA

egunez
egun

MENDI IBILADIAK

BAZTAN

Martxoaren 9an Astigarragara joanen dira Baztango Mendigoizaleak.
Martxoaren 16an Iparlara.

ZUGARRAMURDI

Martxoaren 9an Etxalarrera ateraldia egingen du Atxuria menditaldeak.

AZKAIN

Martxoaren 9an Oleta-Ibardin-Intzola ateraldia egingen du Ibiltzaile menditaldeak.

Martxoaren 11n Ezpeleta (Ihiztarien ibilbidea).

Martxoaren 13an Lantxuteko Malda-Artzamendi.

Martxoaren 16an harrobia, Atekaleun, Alrrun, Miramar.

Martxoaren 18an Bidarrai, Harpekosaindua, Mehatxako lepoa.

Martxoaren 19an Mehatxako lepoa, Itxusiko harriak.

ESKI ATERALDIAK

BERA

Martxoaren 8an Luz Ardidenera ateraldia antolatuta du Agerra Mendi Taldeak. Izen ematea 617 723475 (Luis Mari) edo 677 559436 (Zubieta)

ZINEMA

BERA

Martxoaren 6an «El círculo» filmea ikusgai, 20:30etan Kultur Etxean.

ANTZERKIA

BERA

Martxoaren 9an Emaizta antzerki taldearen azken lana Kultur Etxean, 19:00etan.

TELEBISTAKO TXOKOA



BERRIKUNTZA GEHIAGO

Asteburuko programazioa eta telesaio berriak

Joan den irailean argitaratutako erreportai batean jakinarazten genuen TTIPI-TTAPA TELEBISTAREN emisioren ordutegia zabaltzeko asmoarekin abiatzen genuela ikasurte berria. Asmo hori dagoenezko betetzen ari dela ageriko gauza da, eta udaberri honetan berrikuntza gehiagorekin etorriko da TTIPI-TTAPA TELEBISTA. Berrikuntza horietako bat dagoenezko estreñatu zen duela bi asteberu.

ASTEBURUETAN EMITITZEN DIRA ASTEKO PROGRAMA HAUTATUAK Astegunetan emititu diren programa eta erreportaje batzuk asteburuetan errepikatzen hasi berria

da TTIPI-TTAPA TELEBISTA. Gisa honetan asteguneko lehen edo jatorrizko emanaldia ikusi ez duenak, asteburuko programazioan izanen du hori ikusteko bigarren eta azken aukera. Bertzalde, astegunetan arratsaldeko 8etan hasi eta hurrengo goiza bitarte emisiok ez du etenik.

TELESAIO BERRIAK

Martxotik abuztura programa berri gehiago sartuko dira asteroko maiztasunarekin. Konparaziora, motorraren merkatua jorratuko da *Autoak* saioan, eta *Ezkontzak* eta *Udaberriko modak* ere programa bereziak izanen dituzte.

DISKAK



«Zoramena»

GATIBU

OIHUKA, 2002

Gernikako euskalkian kantatu diote Gatibu taldekoek maitasunari, desioari, askatasun gogori, ihesi ibili beharrean aurkitzen direnei eta bertzei beren lehen CDan, gitarren doinuak nagusi dituen «Zoramena» rockeroan. Izan ere, Gernika ingurukoak ditugu Gatibuko gehienak, Gaizka Salazar baterajolea ez bertze guztiak; hau da, Exkixu taldeko kantari ohia dugun Alex Sardui; Frik, Noiz? eta Einbigu taldeetan aritua den Haimar Arejita gitarrajolea eta Carton Project eta Noiz? taldeetako partaide izandako Mikel Caballero baxujolea. Eta jakina, bertako hizkera aukeratu dute «Musturrek sartunde», «Bilusik», «Mila doinu aidien», «Lorak eskeintzen», «Urepel», «Librea naz», «Ihes», «Ez dago barrotarik», «Zoramena» eta «Ez dot sinisten» kante-tarako ere.

BASERRIA

DATU ITURRIA: NAFARROAKO GOBERNUA (Otsailaren 14tik 21era bitarteko prezioak)



ZERRIKIA

Zerrikumea
(19 kilo): 35,00 €

Zerri gizona
0,987 € kiloa.

Zerramak:
0,44-0,49 € kiloa, bizirik.



BEHIKIA

Aretze gizenak:
Idixkoak: €/kg. Kanal

Extra 3,31
1.koa 3,19
2.koa 3,07

Urruxak: Pta/kg. Kanal
Extra 3,37
1.koa 3,25
2.koa 3,14

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.

Aretze tikiak

(15 egun ingurukoak):
Mestizoak: urruxak 262,00 € eta idixkoak 252,00 €

Nabarrak: urruxak 206,00 € eta idixkoak 182,00 €.

Zaldikoak:

€/k
Sortuberriak: 2,75/2,90
Zaldi-behorrak: 1,75/1,86

Bildotsak:

€/k
6-8 kilokoak: 5,25/5,55
8-10 kilokoak: 4,40/4,75

AGENDA egunez egun

JAKIN BEHARREKOAK

Curriculum Vitae nola prestatu

Curriculum Vitae-a gure bisita txartela bezalakoa da eta honela, lehen begiratuan itxura ona lortu behar du.

Curriculum Vitae batek arreta piztu behar du, interesa sortu eta irakurtzeko gogoia erarazi. CV mota aunitz daude; klasikoa, amerikanoa, kronologikoa, funtzionala... baina guzietan aholku hauek egokitzen zaizkie:

- Kalitate oneko papera erabili, DIN A-4 neurrikoa, hobe kolore xurikoa baldin bada.
- Mekanografiatua aurkeztu. Hobe ordenagailuan, bertzenaz, idazmakina elektronikoa.
- Orriaren bi aldetara leku ausarki utzi.
- Datu pertsonal guziki jarri, helbidea, adina, egoera zibila, kontaktu telefonoa, e-posta...
- Ez orri sobera bidali. Egoiena dena batean biltzea da, baina ezin baduzu egin, hiru baino gehiago ez bidali.



- Ez ezazu eskuz idatzia bidali, ez badute horrela eskatzen bederen.
- Ez sinatu, aurkezpen kartak bertzerik ez dira sinatzen eta.
- Esaldi laburrak eta hizkuntza argia erabili.
- Singularreko lehen pertsona erabili.
- Ez fotokopiarik erabili, beti originalak igorri.
- Ez bidali bertzelako dokumentaziorik (tituluak, ziurtagiriak...), lan-eskaintzan horrela eskatzen ez badute.

- Karnet tamainako argazkia bidali.
- Eskaintzen duten lanpostura egokitu zure profila. Lan-eskaintzari hobekien egokitzen diren zure ezaugarri eta abildadeak azpimarratu.
- Eta azkenik, baina ez horregatik garrantzirik gabeko kontua, ez ezazu ortografia akatsik egin.

Rakel AMIGO
Bortziritako Gizarte Zerbitzuak

ERAKUSKETAK

ELIZONDO

Otsailaren 21etik martxoaren 14ra Iñaki Bergararen argazki erakusketa Arizkunenea Kultur Etxean. Astelehenetik larunbatera 18:30etatik 20:30etara.

BERA

Martxoaren 6tik 9ra emakumeek egindako lan erakusketa Kultur Etxean, 17:00etatik 20:00etara eta asteburuan baita goizez ere, 11:00etatik 13:00etara.

BERTSO-OTORDUAK

BERA

Martxoaren 15ean bertso-afaria Zubiondon Andoni Egaña eta Xebaxtian Lizaso bertsolariekin. Izena emateko 948 625472.

DONEZTEBE

Martxoaren 8an bertso-bazkaria Aranzoko elkartean 14:30etan, Sustrai Kolina eta Amets Arzallus bertsolariekin. Izena emateko Titi eta Amezitia ostatuetan martxoaren 6a baino lehen (20 euro).

SOLASALDIAK

BERA

Martxoaren 7an «Komunikatzen ikasi» solasaldia Kultur Etxean 19:00etan. IPES erakundeke Miriam Perez eta Cristina Miguez ariko dira solasean.

GUARDIAKO FARMAZIAK

112 TFNORA. DEITU

Martxoaren 3tik 9ra

Lesaka (O. Altzate), Igantzi (martxoaren 8 eta 9an), Nabarte, Elizondo (Lezaun), Arizkun, Urdazubi, Leitza (A. Jimeno) eta Goizueta.

BERAKO KULTUR BATZORDEA

Noiz: **Martxoak 6, ortzeguna.**
Orduetara: **Arratsaldeko 20:30etan**
Lekua: **Kultur etxea**
Zinekluba: **El círculo**
Irango emakumeen kronika gardina. Teknika dokumentalok erabiltzen ditu Jafar Panahi zuzendariak 2000. urteko filme honetan.

EMAKUMEAREN ASTEA

Ortzegunetik igandera emakumeek egindako lan erakusketa Kultur Etxean. 17:00etatik 20:00etara eta asteburuetan baita goizez ere, 11:00etatik 13:00etara.

Solasaldia

Ortzirala, martxoak 7, 19:00etan, Kultur Etxean «Komunikatzen ikasi». Hizaldia guztietatik izanen da. Hizlariak: Miriam Perez eta Cristina Miguez (IPES)

Emakumeen afaria

Larunbata, martxoak 8, 21:00etan
Afaria Zolan jabetxean. Izen ematea 948 630 967 tel.

Antzerkia

Igandea, martxoak 9, 19:00etan Kultur Etxean Berako emakumez osatutako Emakume taldeak bere azken antzezlan aurkeztuko du.

00-34 948 63 11 88

Sail honetan iragarkia jartzeko 7 € ordaindu behar da. T'tipi-ttapa telebistan ere agertuko da (nahi izanez gero argazkiarekin). 7 € Rural Kutxako 3008 0080 53 0703304626 kontuan sartu eta justifikantea t'tipi-ttapa iragarkia igorri faxez edo postaz.

...ETA GAINERA, ZURE BERRI ESKUALDEKO ETXE GUZIETAN IZANEN DUTE!!

Sail honetan partikular, profesional eta merkatarien informazio eta zerbitzuen berri ematen da. t'tipi-ttapa ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzunkizunik.

ETXEBIZITZAK

- 101. Saldu
- 102. Erosi
- 103. Errentan emateko
- 104. Errentan hartzeko
- 105. Etxe konpartituak
- 106. Bertzelakoak

GARAJEAK/LOKALAK

- 107. Saldu
- 108. Erosi
- 109. Errentan emateko
- 110. Errentan hartzeko
- 111. Bertzelakoak

LURRAK/ORUBEAK

- 112. Saldu
- 113. Erosi
- 114. Errentan emateko
- 115. Errentan hartzeko
- 116. Bertzelakoak

ZERBITZUAK

- 201. Hargin/Igeltseroak
- 202. Pintoreak
- 203. Elektrizistak
- 204. Iturginak
- 205. Zurginak
- 206. Mendi lanak
- 207. Garraioak
- 208. Bertzelakoak

LANA

- 301. Eskariak
- 302. Eskaintzak

IRAKASKUNTZA

- 401. Eskaintzak
- 402. Akademiak

MOTORRA

- 501. Salerosketak
- 502. Tailerrak

ANIMALIAK

- 601. Emateko
- 602. Salerosketak
- 603. Klinikak

DENETARIK

- 701. Galdu / aurkituak
- 702. Salerosketak
- 703. Bertzelakoak

HARREMANAK

- 801. Agurrak

ETXEBIZITZAK

101 Saldu.

ARIZKUN. Pisu moblezatua salgai. Trastero eta garajearekin. Sartzeko modukoa. Egoera onean. ☎ 639 012 085

BULDAIN LEITZAN

Pisu berriak salgai. Elbarren kalean, Arakindegia jatetxearen parean. 12 etxebizitza izango dira eta baita lokal komertzial ederrak ere.

☎ 649 476 615
☎ 948 510 534 bulegoa

BULDAIN LEITZAN

Manuel Lasarte Kalean garaje berriak salgai. ☎ 649 476 615 ☎ 948 510 534 bulegoa

ADOS

• Eskaera handia dagoenez, bordak, baserriak, lur-eremuak, bajeak etab. erosi nahi dira.
• Edozein herritan badugu zerbitu. Eskatu informazioa
948 451 841 / 607 978 656

ADOS

• Donezteben obra berriak. santa Luzia plazan 8 apartamentu eta lokal komertzialak salgai.
• Osasun Zentru ondoan pisu berriak salgai.
948 451 841

ETXEBIZITZAK

104 Errentan hartu

Bera, Doneztebe, Elizondo edo inguruetan pisua errentan hartuko nuke. ☎ 606 235015.

GARAJE/LOKALAK

109 Errentan emateko

BERA. Kanttonberri, 4. Bajeira errentan emateko. ☎ 600 902 665

ELIZONDO. 200m²tako bajeira salgai. Zentrikoa. ☎ 607 978 656

PALMADERAN

Kolekzio aldaketa dela eta, martxoaren 4tik 21era 83 piezako baxera-jokua, 27 piezako kafe-jokua eta pieza solteak merke-merke saltzen ditugu.

☎ 948 630225

ETXALAR. Nabe bat errentan emateko. Karreteran bertan, herriaren sarreran. Lortzen lantegia zena. 300m² inguru, 4 bulego, nabe bat eta komuna. ☎ 948 635 013

LURRAK/ORUBEAK

112 Saldu

DONEZTEBE. Etxeak egiteko lur eremua salgai. ☎ 600 702 060.

LANA

301 Eskaria

40 urteko emakume bat etxeko lanak edota haurrak

eta xaharrak zaintzeko eskeintzen da. ☎ 678 926 557

Emakume bat interna moduan lan egiteko eskeintzen da. ☎ 650 065 062

BORTZIRIETAN. Emakume batek etxetan edo haurrak zaintzen lan eginen luke. ☎ 948 387 056

Bortzirietan. Emakume bat etxeko lanak edo haurrak zaintzen lan eginen luke. ☎ 650 065 062

Bi lagun lanaren truke, bizitzeko etxe batean bila gabiltza. Nahiago genuke nek-zalturismo edo baserri batean. ☎ 656 742 410

Giza-kultur dinamizatzaile, sexu-hezitzaile eta erlazio-publikoetan teknikaria den pertsona bat, lan bila dabil. ☎ 656 742 410

LANA

302 Eskaintzak

Peopleek Baztan-Bidasoa zonalderako peoiak hautatzen ditu. ☎ 948 197 041

Kamarero bat behar da os-



ETXALARko UDALA

ETXALARKO UDAL IGERILEKUEN FUNTZIONAMENDU, GARBIKETA ETA MANTENIMENDU LANAK EGITEKO ESLEIPENAREN DEIALDIA

• **Behar diren langileak:** 2
Interesatuak bi era hauetatik edozein proposamen aurkez dezakete:
- Lan kontratua
- Autonomo kontratua.

• **Baldintzak:**
Udal idazkaritzan daude interesatuen eskura.

Eskaeren aurkezpena:
2003ko martxoaren 20ko 12:00ak arte.

Etxalarren, 2003ko otsailaren 20an
Alkatea, Miguel M^a Irigoien



BERAko UDALA

AYUNTAMIENTO DE BERA

UDAL PLANAREN PROIEKTUA HASIERA BATEZ ONESTEA

2002ko abenduaren 30ean Herriko Etxeko Udalbatzak egindako bilkuran, ondoan dagoen erabakia onetsi zuen:

1. Berako Udal Plana hasiera batez onartzea.
2. Aipatu Udal Plana hilabete bateko epean jendaurrean jartzea, Nafarroako Foru Komunitatean argitaratzen diren egunkarietan eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean aurreko iragarkia jarrita.
3. Udalerri osoan obra baimenak emate eten gelditu direla seinaleztatzea.
4. Hasiera batez onartutako Udal Plan hau Nafarroako Gobernu behari diren Departamentuetara eta "Confederación Hidrográfica del Norte" izenekoa bidaltzea legeak xedatzen duten txostenak egin ditzaten.

2003ko otsailaren 7ko 17. zenbakidun Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratutako iragarkia.

Bera, 2003.02.12
ALKATEA, J.J. Goia Etxeberria

tatuan asteburuetan lan egiteko. ☎ 948 631 394

Emakume bat behar da andre heldu bati lagundu eta berekin bizitzeko. Donostia erdian. Asteburu eta besta egunak libre. ☎ 943 428 486 (bazkaltze eta afaltze orduan).

Kamarera bat behar da jantokian zerbitzatzeko. ☎ 948 630 967

Emakume euskaldun bat behar dut astelehenetik ostiralera gurekin bizitzeko, etxekolanak egiteko eta haurrak zaintzeko Donostian. Ondo ordainduko dut. ☎ 607 183 166 (Izaskun)

Sukaldaria behar da Iruñean. ☎ 948 189 430 - 948 186 448 (Jose M^a)

Kamarero/a bat behar da ostatuan lan egiteko. ☎ 948 631 428.

MOTORRA
501 Salerosketak
Renault 21, 9 urtekoa salgai. 2000i. Gasolina, 110.000km. 250.000

pta. Egoera onean. ☎ 948 581 127 - 669 974 725

Ford Mondeo TD grisa, 2000 urtekoa eta 30.000 kmrekin salgai. Airbag, ABS eta hai-ze egokituarekin. Egoera onean. ☎ 948 631 456

Renault 5 1.4 1989 urtekoak kilometro gutxiarekin. ITV 2004ko urtarrila arte. NA-Y. 200.000 Pta. trasferentziarekin. ☎ 629 014 677

Seat Marbella salgai. 48.000km. ITV berriki pasatua. Egoera onean. ☎ 948 580 896 - 948 580 677 (Gauetz).

Citroen Saxo 1.1 salgai. 5 urte egin behar ditu. Egoera onean. ☎ 948 630 556

ANIMALIAK
601 Emateko

Zakurkumeak oparitzen ditut. ☎ 948 631 261

ANIMALIAK
602 Salgai

Asto emea umearekin salgai. 5 urteko aharea salgai. ☎ 948 634093-948634022.

Ahuntz ñanoak salgai. ☎ 948 630 967

DENETARIK
701 Galdu-aurkituak

Kate bat aurkitu da Ulibel-tzak elkartearen. Urrezkoa orain dela urte bat. ☎ 948 450 433

LESAKA. Walkie-talkiea galdu nuen abenduaren 26an, Matxitenea parean. ☎ 948637467.

DENETARIK
702 Salerosketak

Sukalde industrial bateko elektrogailuak salgai. Oso egoera onean, urte guttiko erabilpena. ☎ 948 397 039

MENDAUR MOTOR
☎ 948 450333 • DONEZTEBE

Bigarren eskuko kotxeak:
Peugeot 306 TD, 106 D, Terrano 5 atekoa, Golf GTI 16v, Patrol 5 atekoa, Renault 19 D, Opel Midi, Lada SUZUKIAK ETA VITARAK AUKERAN



Musika ekipoa salgai. 2000w, etapa eta kableekin. Egoera oso onean. ☎ 649 83 99 22

Esnea hozteko tankea salgai. 100 litro. ☎ 948 630 828

Sukaldeko moble eta elektrogailu guztiak bere planoekin salgai. Berri berriak eta prezio onean. ☎ 687 021 854

Arkon izozgailua salgai. Zanussi markako, egoera hagitz onean. 86 zm altuera, 1,655m altuera eta 69,5 zabalera. ☎ 948 580 481 - 687 025 131

Gaztain piketeak salgai. ☎

948 585 008.

Ikatza, harri ikatza salgai. ☎ 948 581 009

ARANTZA. Gasoilezko berogailuaren motorra salgai. ☎ 948 634 196

Zakurrak ibiltzeko aluminiozko karroa salgai. 1,40 x 1,20. ☎ 948 580 385

Sutarako pago egurra salgai, puskatua. ☎ 948 610 686.

Menghini markako trikita salgai. Prezio onean. ☎ 948 514 245 (ilunabarrean).

DENETARIK
703 Bertzelakoak

Soldadore lanak eginen nituzke. Esperientzia handikoa. ☎ 656 742 410.

Bi aparadore, aintzinekoak eta zahar itxurakoak. Berri berriak. ☎ 948 580 481 - 687 025 131.



BIDALI BERE ARGAZKIA, TESTUA ETA 0,26 EUROKO 13 SEILO TTIPI-TTAPAKO HELBIDERA:
ttipi ttpa • Herriko Etxeko Plaza, 1 • 31780 BERA

LITERATUR LEHIAKETA

Gaia: «Herriak eta hizkuntzak. Euskara eta Euskal Herria»

- Lanak aurkezteko epea martxoaren 29an itxiko da.
- Lanak Bortzirietako Euskara Mankomunitatera igorri behar dira.
- SARIAK:
 - 1.- 900 €
 - 2.- 450 €
 - 3.- Bortzirietako 16 eta 20 urte bitarteko gazteentzat 150 €
- Informazio gehiago edo oinarriak jaso nahi izanez gero: Bortzirietako Euskara Mankomunitatea - 948 634125

Antolatzailea: 

Laguntzaileak: • EUSKADIKO KUTXA • MARTIKO • TABERNA EDARIAK • BENTA MIGUEL



Argazkiak berreskuratzeko, bidali kartazala zure helbidearekin.



ANDONI AUHOBERRY azkaindarrak urtea bete du otsailaren 19an. Zorionak eta muxu bat Azkain-go eta Donapaleuko familiaren partetik.



ANE TELLETXEIA IGOA lesakarrak 2 urte bete ditu otsailaren 19an. Aunitz urtez familia osoaren eta berexiki Pelloren partetik.



ANE TELLETXEIA IGOA 2 urte bete ditu otsailaren 19an. Gure mairu tikiari zorionak eta muxu bat Harizpeko familiaren partetik.



JONE OLAETXEIA SANZ beratarak 9 urte bete ditu otsailaren 25ean. Zorionak aita-ama, ataxki-amatxi, osaba-izeba, lehen-gusuen partez.



JULEN SANZ SERRANO iruñeak 11 urte bete ditu martxoaren 9an. Zorionak Elizondoko lehengusu-lehengusin eta ataxki-amatxiaren partetik.



JESUS SUSPERREGI lesakarrak martxoaren 2an urteak bete ditu. Zorionak Jasone eta Javieren partetik.



AINARA ARRETXEIA IRIGOIEN iruritarak 16 urte bete ditu martxoaren 8an. Ez ligatu, txanpaina presatu! Lagunak berexiki Silvia.



NAIARA OTEIZA RAZKIN oronoztarak 13 urte bete ditu martxoaren 21ean. Afaria noizko? Muxu handi bat. Ainara, Iratxe eta Xilvi.



FRAN ETA UNAI IBARRA Elgorriagakoak martxoaren 9 eta 3an urteak beteko dituzte. Zorionak eta muxu bat etxekoan partetik.



EIDER LOIARTE CABEZAS beratarak 2 urte bete ditu martxoaren 4an. Zorionak eta muxu handi bat familiaren partetik.



MAIANA ALTZUUREN GOIA beratarak urtea beteko du martxoaren 12an. Zorionak ataxki, osaba-izeba eta Josuren partetik.




IRENE ZELAIETA IRIARTE beratarak 19 urte bete ditu martxoaren 6an. Zorionak!!! Julen, atxa eta amaren partetik.



ENAITZ IRIARTE JAUREGI donamariarrak urtea beteko du martxoaren 8an. Zorionak Alman-dozko aietxi-amatxi, Roberto eta familiaren partetik.



ZORIONAK familiaren partetik aita-semearendako. Urteak martxoaren 19an eta martxoaren 13an beteko dituzte.



JOTAK 20 urte bete ditu otsailaren 28n. Zorionak Arragoko lagunaren partetik.



ITURENGO UDALA

AYUNTAMIENTO DE ITUREN

ENKANTEA: ITURENGO AMEZTIAKO BIDEA ZOLATZEKO 1. FASEKO OBREN ADJUDIKAZIOA

Iturenko Udalak lizitazio publikorako deia egin du, idazpuruan aipatutako lanak enkante irekian adjudikatzeko.

- **Xedea:** Ameztiako bidea zolatzeko 1. faseko lanak kontratatu eta egitea, Santiago Sainz de los Terreros Goñi jaunak prestatutako proiektuari jarraituz.
- **Aurrekontua:** Kontratuaren aurrekontua (BEZa barne) ehun eta hiru mila zazpiehun eta laurogeita hamazazpi euro eta hemezortzi zentimokoa da (103.979, 18).
- **Eskaintzen aurkezpena:** udal idazkaritzan, 2003ko martxoaren 12ko 14:00ak arte (N.A.O. 21 zka., 2003-02-17).
- **Proposamenak non eta noiz irekiko diren:** hurrengo egunean, 13:00etan, Udaletxean.
- **Proiektua eta klausula ekonomiko-administratiboaren plegua interesatuaren eskura daude udal idazkaritzan eta PAPELERIA RUBIOn, Francisco Bergamin kalea, 10, Iruña.**

Iturenen, bi mila eta hiruko otsailaren hogeian
ALKATEA, José María Gorosterrazu Elizalde



ITURENGO UDALA

AYUNTAMIENTO DE ITUREN

ENKANTEA: ITURENGO AMEZTIA ETA AURTIZKO BIDEAK ZOLATZEKO LANEN ADJUDIKAZIOA

Iturenko Udalak lizitazio publikorako deia egin du, idazpuruan aipatutako lanak enkante irekian adjudikatzeko.

- **Xedea:** Ameztiako bidea zolatzeko lanak kontratatu eta egitea, abeltzaintzako toki azpiegiturari laguntzeko, Santiago Sainz de los Terreros Goñi jaunak prestatutako memoria teknikoari jarraituz.
- **Aurrekontua:** Kontratuaren aurrekontua (BEZa barne) ehun eta hemeretzi mila bederatziehun eta hamaika euro eta laurogeita hamalau zentimokoa da (119.911,94).
- **Eskaintzen aurkezpena:** udal idazkaritzan, 2003ko martxoaren 12ko 14:00ak arte (N.A.O. 21 zka., 2003-02-17).
- **Proposamenak non eta noiz irekiko diren:** hurrengo egunean, 13:00etan, Udaletxean.
- **Memoria eta klausula ekonomiko-administratiboaren plegua interesatuaren eskura daude udal idazkaritzan eta PAPELERIA RUBIOn, Francisco Bergamin kalea, 10, Iruña.**

Iturenen, bi mila eta hiruko otsailaren hogeian
ALKATEA, José María Gorosterrazu Elizalde



BERAKO UDALA

AYUNTAMIENTO DE BERA

HERRIKO BIDEEN INBENTARIOA HASIERA BATEZ ONESTEA

2002ko abenduaren 30ean Herriko Etxeko Udalbatzak egindako bilkuran, ondoan dagoen erabakia onetsi zuen:

1. Herriko bideen inbentarioa hasiera batez onestea, 2002ko apirilakoa.
2. Aipatu inbentario hau hilabete bateko epean jendaurrean jartzea, Nafarroako Foru Komunitatean argitaratzen diren egunkarietan eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean aurrez aurreko iragarkia jarrita, herritarrek eta interesatuek azter dezaten eta nahi dituzten erreklamazioak jar ditzaten.

2003ko otsailaren 7ko 17. zenbakidun Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratutako iragarkia.

Bera, 2003.02.12

ALKATEA, J.J. Goia Etxeberria



BERAKO UDALA

AYUNTAMIENTO DE BERA

OIHAN ENKANTEA AKATSEN ZUZENKETA

Zenbait komunikabidetan argitaratutako Berako Gondendiaga, Arxelu, Lizuniaga eta Santa Bárbara parajetako oihan-probetxamenduen enkanteari buruzko iragarkian akatsak aurkitu direnez, iragarki balioiduna 2003ko urtarrilaren 29ko 13. zenbakidun Nafarroako Aldizkari Ofizialeko gaztelaniazko bertsioan argitaratutakoa dela jakinarazten da.

Beraz, proposamenak fetxa horretatik hasita hurrengo 27 egun naturaletan aurrez daitezke, epea otsailaren 25ean 13:00etan amaitzen delarik.

Bera, 2003.02.13

ALKATEA,
J.J. Goia Etxeberria



KULTURKARI
publizitatea • zerbitzuak

boletoak

Saaki eder bat eta afaria
bi lagunentzat **1€**

kattu ostatu jatetxea
menak • behataz
plater kateak

DIARRA
Sare jantzeri eta txikiak zuzen da

Arretxe, 22 **LEKANA** Tlfno. 948 627 572

ALZUCARAI

facturak



ERAZTUTZEKO AGINDURIA

Hasierako	...
Amakoa	...
Erantzuna	...
Erantzunaren data	...
Erantzunaren lekua	...
Departamentua	...

2002

Tipi tipa

telefono gida

telefono gidak



logotipoak

**BORTZURRIETAKO
ELEKTRIKO
MAGAZINA BERTEA**



diptikoak



Dutariak

Landa etxea • Casa Basca

LOTEKATZ



orriak

ORRIAK

...

LA OZA V BIEA

X. JAURDIALDIA GERONIKOK
XI. JAURDIALDIA GERONIKOK

IXAILA 2002 ANKO

CAN

karpetak

bestetako programak

ETXALAN KO BESTAK

ERREPRESALIA TUAK

etxera!!!

...

pegatinak

ERREPRESALIA TUAK

etxera!!!

...

Farmaberri

...

aldizkariak

txartelak

Maderas GOME

...

Maderas GOME

...

roz garbia !!

...

egutegiak

...

oroitgarriak

...

MUEBLES A METS



LARUNBAT
ARRATSALDETAN
EREKIA

Sarrera
BERAtik da
Sastrin karrika,
3.2 - 3.4 Alkaiaga
31789 LESAKA

Tfnoa. 948 630 537
Fax. 948 631 443

BISITATU GURE
WEB ORRIA

www.mueblesamets.com

Sukaldeak
Egongelak
Logelak
Bainugelak

4000 m²

erakusketa
AUKERA HANDIAK

KOLTXOIAK

- MALGUKIA
- LATEX-a
- MIXTOA

OINARRIAK

- SOMIERRAK
- ABATIBLEAK
- TAPIZATUAK

%50
deskontua



MERKA BEHERAPEN
HANDIAK
ERAKUSKETA
ALDAKETA
A METS

